

BERRIKUNTZA PROZESU BATEN MAPA BERRIA: ERALDAKETAREN EREDUA

ETORKIZUNEKO IRAKASLEEN
FORMAZIOAN ERAGITEN

Ainara Imaz eta
Nagore Ipiña (Ed.)

Helena Azkarragaurizar (Ilustrazioak)



Berrikuntza prozesu baten mapa berria:
eraldaketa eredu.
Etorkizuneko irakasleen formazioan eragiten.

Ainara Imaz eta Nagore Ipiña (Ed.)
Helena Azkarragaurizar (Ilustrazioak)

Mondragon Unibertsitateak argitaratua.
2020ko uztaia
ISBN: 978-84-09-21061-9
Lege Gordailua: LG D 644-2020
Diseinua: Cuchillo
Inprimaketa: Gertu. Koop.


**Mondragon
Unibertsitatea**
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



BERRIKUNTZA PROZESU BATEN MAPA BERRIA: ERALDAKETAREN EREDUA

ETORKIZUNEKO IRAKASLEEN
FORMAZIOAN ERAGITEN

Liburu honen egiletza Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko, HUHEZiko, kolektibo osoarena izan da baina bereziki, proiektua definitu eta bultzatu duten HUHEZItarrena:

Nekane Arratibel, Aitziber Arregi, Itziar Arregi, Ainara Artetxe, Eugenio Astigarraga, Idoia Astigarraga, Agurtzane Azpeitia, Ana Carpintero, Mikel Etxaburu, Eneritz Garro, Andrés Gostin, Ainara Imaz, Nagore Iñurrategi, Nagore Ipiña, Olaia Jiménez, Asier Lauzurika, Arantza Mongelos, Arantza Ozaeta, Begoña Pedrosa, Eider Salegi, Ane Urizar, Joserra Vitoria

eta nola ez, diseinu eta gauzapenean aritu eta aritzen zaretenona.

Maite Garciari.



AURKIBIDEA

1.	Sarrera hitzak	9
2.	Nork eraikiko du etorkizuna? Etorkizuneko protagonisten bila	15
	a. Lehenengo pausoa: big questions	17
	b. Bigarren pausoa: gure mundua ezagutzen	18
	c. Hiragurren pausoa: Hezkuntza erakundeen etorkizunerako agertokiak: gizartetik hezkuntza erakundeetara eta alderantziz	25
	d. Etorkizuneko protagonistak: ikasleen irteera profila marraztuz	27
3.	Zer ikusi, hura ikasi? Ildo berriak hezkuntzan: (er)aldaketarako hitzak eta ekintzak	29
4.	Hezkuntzaren dilemak eta desfioak: zer proposatu pertsonak hezteko?	45
	a. Nola lan egin, zer erabaki hartu?	49
	b. Eta hori nola eraman egunerokora?	56
	c. Nola ebaluatzen dugu?	58
	d. Zer testuinguru eskaintzen ditugu? Pertsonalizazioantz	62
	e. Non gaude orain? Zenbait erronka	64
	f. Eraldaketaren ereduak ikertzen	65
5.	Elkarrizketarako gonbita	67

Sarrera Hitzak



«Ikasteko egoera bat sortzea jakintzak berak berriz ere zalantzan jartzea da»

Phillippe Merrieu

Irakasleen lanbidea berrasmatu nahi al dugu? Ezin dugu erronka gehiago atzeratu

Eskuartean duzun liburu honetan, gure berrikuntza prozesuan bizi izandako gakoak berri eman nahi dugu: ez dauzkagu erantzun guztiak, baina, gure hezkuntza eredu berraztertzeko lehengo parada egin dugun honetan, zuekin partekatze eta hausnartzeko hautua egiten dugu...

XXI. mendeko gizartearen ezaugarri nagusiak etengabeko aldaketa eta ezegonkortasuna dira. Globalizazioak, informazioaren teknologiak, krisi finantzario eta ekonomikoak. Hezkuntza marko eta politika aldakorrek gure bizitzan konplexutasuna handitu egin dute, eta aldaketen abiadurak izugarri azkartu du prozesua. Erronka inportantea dauka unibertsitateak testuinguru horretara etengabe egokitze.

Hainbeste erreforma eta kontrarreformaren (Bologna...) ondoren, bere testuingurutik kanpo egon den curriculumetik ikaskuntza ulertzeko modu malgu eta ireki batera igaro nahi dugu, ikerketa-ekintzara eta etengabeko gogoetara. Etorkizuneko hezitzaileentzat nahi ditugun giza ezaugarriak lortzeko, beharrezkoa da ikaskuntza agertokiak moduren batean antolatzea, eta beste bizipen pertsonal eta profesional batzuk izatea, oraingoetatik harago, bai ikasleek, bai irakasleek. Gure lanbidea betetzen dugun testuinguru eta komunitateetan ikaskuntza sustatzeko konpromiso handiaren alde hezten dugu. Ikas dezatela lanbidearen zentzuan. Eta horretan arakatzen ari gara. Irakaskuntza balio gisa irakastearen arakatu nahi dugu, ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten eragile guztiei begira.



Gure irakasle lantaldeen begirada aldaketa

Zergatik uste dugu irakasleak hezteko komunitate desberdin bat garela? Eskuliburu honen helburua hezkuntza eraldaketarako esperientzia kooperatibo baten berri ematea da. Gure apustua honako hau izan da: sormen gaitasunak garatzeko kalitatezko espazioak zabaltzea eta haren aldeko apustua egitea, eta egunerokoan ikaskuntza goiburu duten pertsona guztien prestakuntza eta garapen baldintzak areagotzea eta dibertsifikatzea. Kontakizun horren atzean, ikaskuntza instituzionalak irakaskuntza eta ikaskuntza bera egiteko eta sentitzeko modu gisa kokatzen ahalegintzen gara. Izan ere, esperientzia, esku-hartze edo laguntze bakoitzean, arrisku bat hartzen dugu, eta horrek konpromisoa eskatzen die aldaketa esperientzietan parte hartzen duten pertsona guztiei, esperientzia edozein dela ere.


Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko lantaldeak, motibazioa eta lan antolatua ardatz harturik, eskuliburu honen bitartez jakinarazi nahi du nola izan behar duten gure ustez profileen, ikaskuntza eredu berriek eta egiteko modu berriek. Erronka zera da: etorkizuneko irakasleak prestatzea ziurgabetasunarekin eta etengabeko ikaskuntzarekin loturiko egoerei aurre egiteko, ikaskuntzak berekin dakarren konplexutasun guztiarekin.

Gure ustez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hezitzaileek ez dute behar forma aldaketa bat, baizik eta sakoneko aldaketa bat. Ziurtasunetik ziurgabetasunera iragan behar dugu. Dogma didaktikoek egoera intelektual oso deseroso bat sustatzen dute, eramaten zaila, eta egia absolutuek ez dute ikaskuntza sustatzen, hezkuntza praktika konplexua eta aldakorra baita berez:

psikologia, emozionaltasuna, didaktika, etika... Horra ematen dugun pauso bakoitzean aurrez aurre aurkitzen ditugun ondasun ukiezinak. Horregatik, erdigunera ekarri ditugu ikasleak, gure graduetakoa ikasleak eta haien ezaugarri pertsonalak, ikaskuntza pertsonalizatua eta kokatua sustatzeko.

Uste dugu hasierako prestakuntza urteak erabakigarriak direla kultura profesionala konfiguratzeko eta irakasle trebetasun eta jarrerak finkatzeko. Horregatik, prestakuntza ereduak eta pertsona ereduak errotik eraldatzea oinarri duten ikasketa planetara eta eredura jauzi egin nahi dugu. Apustu kooperatibo honen zutabeetako bat bizitzan zehar ikasteko grina eta hazkuntza pertsonala laguntzea, eragitea eta sustatzea da, maila guztietan.

Horretarako, beharrezkoa da esperimentatzen eta ikertzen jarraitzea: nola ikasten duten gaur egungo ikasleek; nola sentitzen duten ikaskuntza; zer motibazio eta premia dituzten. Prozesuak ebaluatzea eta etengabeko alderaketak egitea; koirakaskuntzarako espazioekin esperimentatzea eta horrek ikaskuntzan zer eragin duen hausnartzea. Etorkizuneko hezitzaileak prestatzeko zeregin konplexuan parte hartzen dugunok erantzukizuna daukagu, baita motibazioa ere, ikaskuntzarako moduak ikasten eta ikertzen jarraitzeko.



Gogoetarako eta galderak egiteko ariketa honekin, irakasle lanbidearen gaineko begirada eraldatzaile eta batez ere baikor eta erronkaria transmititu nahi dugu. Eztabaida bat ireki nahi dugu lehenbailehen lanbide zorrotzena eta aldi berean liluragarria den honi buruz. Esperientziaren protagonisten exijentziari eta konpromisoari esker da hezkuntza proiektu hau dinamikoa, irekia, malgua, zorrotza eta liluragarria aldi berean. Ikaskuntzak kolegiatua behar du izan, ikaskuntza areagotzen eta esperientzian parte hartzen duten pertsona guztien kapital soziala garatzen duen heinean. Proiektu instituzionala askotariko eta malgu baten lehen geraldia duzue zuen aurrean. Curriculumak esperimentaziorako esparru bat da jada; eta esparru horrek etengabeko garapena eta gogoeta bermatu eta kolektibo baten garapen profesional eta pertsonala sustatu behar ditu.

Laborategi sozial izatera iristeko, oraindik bidea daukagu egiteko. Hurrengo erronkei ilusioz egingo diegu aurre; ikaskuntza pertsonalizatua ikertzeko espazio berriak, ikasteko eta bizitzeko espazio berriak, gure apustu pedagogikora egokitu behar direnak; titulazio berriak, proiektu berriak... Unibertsitatea ulertzeko eta egiteko sistema berri bat...Gure egiteko eta izateko moduetan badago berrikuntza sustatzea, ezta? Aldi berean, jar dezagun anbizioa eta pasioa egiten dugun guztian.

Begoña Pedrosa

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa



Nork eraiki-
ko du etor-
kizuna?
Etorkizune-
ko protago-
nisten bila

«Etorkizuna ez da
aurreikusten, sortu
egiten da»

Andy Stalman, 2015



Etorkizuna protagonista izango diren horiekin eraikitzen dela diote; protagonista izango diren horiek sortuko dutela, alegia. Eta guk ere izan nahi dugu protagonista, guk ere nahi dugu etorkizuna sortu. *Gutaz* ari garenean, hezkuntza komunitateaz ari gara, gizarteaz ari gara, zutaz ere ari gara. Eta bereziki, liburu honetan, etorkizuneko irakasle izango diren horietaz ari gara.

Zer egin, bada, etorkizuneko protagonistak izateko?

Hiru pauso aurreikusten ditugu protagonista izateko eta protagonistekin etorkizuna sortzeko. Hiru pauso etorkizuneko irakasleen formazioan eragiteko, baina ez hori bakarrik, baizik eta baita eskoletan, hezkuntza erakundeetan, etorkizuneko protagonistengan eragiteko ere.

Lehenengo pausoa galderak formulatzea izango da, galdera handi edo big question deritzegunak. Guk batzuk formulatu ditugu, baina askoz ere gehiago bururatuko zaizkizu zuri; ez dugu zalantzarik. Galderei erantzuteko, ordea, testuingurua ulertu beharko dugu, hurbilekoa eta urrunekoa. Eta hori da bigarren pausoa. Testuingurutik egingo dugu gure proposamena, baina mundua ulertu beharra dugu. Eta hirugarrena, hezkuntza erakundeen eta gizartearen arteko mugak lausotzea. Ez da berria azken hori, baina uste dugu ez dagoela sobera berriz aipatzea eta indartzea. Hiru pauso horietatik ondorioztatuko ditugu etorkizuneko protagonisten ezaugarriak; horietatik abiatu gara gure proposamena marrazteko. **Let's start!**

Lehenengo pausoa: big questions

Ezagutza eraikitzeke modu bat galderak planteatzea da. Galdera bakar batek hamaika erantzunetara garamatza, eta hamaika galdera sortzeko aukera ematen digu. Pertsonon ezaugarri garrantzitsu bat ere bada galderak planteatzeko gaitasuna, umetatik zahartzarora: zer, nola, zertarako, norekin, zergatik... Umetan kuriositatea eta nagusiagotan hausnarketa.

Galdetzea ezinbestekoa den bezala, galdera onak egiteak ere badu garrantzia. Ezagutza sortzen eta antolatzen laguntzen digute galderek; gauza berriak ezagutzen, dakigunaren eta ez dakigunaren inguruan hausnartzen, zalantzan jartzen, eztabaidatzen, pentsatzen eta munduari zentzua ematen.

Ados egongo gara, beraz, etorkizunaz eta hezkuntzaz ari garenean sekulako garrantzia duela galdera onak planteatzeak. Eta ados egongo gara ere hezkuntzak badituela hainbat galdera handi edo big question egunerokoa definitzen eta etorkizunekoa marrazten laguntzen digutenak:

Zer mundutan biziko gara (dira ikasleak)? Zer ezaugarri beharko ditugu (eta dituzte) mundu horretan bizitzeko? Ezezagunaren eta ziurgabetasunaren aurrean, nola jokatu beharko dugu (eta dute)? Zer erantzun eman beharko diegu (eta diete) erronka eta auzi globalei? Nola lagundu ikasleei etorkizunerako prestatzen edo etorkizuna sortzen? Nola prestatuko gara gu etorkizunerako? Zer izango da ikastea etorkizunean? Zer eragin izango du munduak gugan?


Gainera, hezkuntzaren inguruko big questionak denonak dira, ez soilik irakasleenak, ikasleenak, gurasoenak edo politikarienak. Galdera partekatuak dira: gurasoenak, ikasleenak, irakasleenak, hezkuntza ez-formalean aritzen direnenak, enplegatzaileenak, ekintzaileenak, hezitzaileenak, komunitateko partaideenak, erabakiak hartzen dituztenarenak, hezkuntza politikak definitzen dituztenarenak, edukiak zein proposamen didaktikoak diseinatzeko dituztenarenak; azken finean, denonak. Eta, galderak denonak badira, erantzuna(k) bilatzeko ardura eta konpromisoa ere denonak dira.

Galderak eta erantzunak, ordea, testuinguru zehatz batean kokatzen dira, eta testuinguru horretan ulertu behar ditugu. Mundua zalantzan jarri beharko dugu galderei erantzuteko. Baina, horretarako, gure mundua ulertu beharko dugu lehenengo.

Bigarren pausoa: gure mundua ezagutzen

Hezkuntzak eta gizarteak, gizarteak eta hezkuntzak ispiluan begiratzen diote elkarri. Batak bestearengan eragiten du; gizarteak dakar bere airea, eta, Bourdieuk zioen moduan, hezkuntzak egin egiten du gizartea. Horregatik, hezkuntzaz ari garenean, gizarteaz bi hitz baino gehiago esan beharra dago, mundua ezagutu beharra dago. Hezkuntzak ez al du ba ikusmiran mundu hobea sortzea!

Askotariko izendapenak jaso dituen gizartea da gurea [spoiler: zerronda luzea doa]: gizarte postindustrial, gizarte postkapitalista, modernitate likidoa, informazioaren gizartea, sare gizartea, ezagutzarena edo ezezagutzarena, nekearena, gardentasunarena, ikaskuntzarena, ezjakintasunarena, kultura ezarena, edo azelerazioarena, besteak beste. Baina badira



beste bi termino –hauek gogoratzen badituzu, nahikoa izango da– konfigurazio ezberdin horiek biltzen dituztenak: **VUCA** (ingelesezko *Volatility, Uncertainty, Complexity, Ambiguity*) edo **UTRU** (*Unprecedented Transformation and Radical Uncertainties*). Hau da, gizarte aldakor, ziurgabe, konplexu eta anbiguo; azken finean, sekula gertatu ez diren eraldaketa azkar eta erradikalen gizartea. Eta hor bizi gara gaur. Eta biziko gara urte batzuetan.

Gizartea, beraz, aldakorra da, eta horrek pentsatzeko moduak aldatzera behartzen gaitu etengabe, eredu berriak eta tresna berriak ezagutzera. Gaur egun, beraz, gizarteak eta berak dakarren obsoleszentziak edo gauzen zahartzeak eta birtualitateak erronka berriak jarri dizkigu. Aurrez genituenak gutxi ez eta... Horrek, gainera, etengabeko berrikuntza sustatzera bultzatzen gaitu: gaur berria denak atzokoa zahartzea dakar. Abiaduraz gainera, azkar. Eta hori ere bada gizartearen beste ezaugarri bat.

Gaur egungo gizartearen diagnostikoa egitea garrantzitsua da, baina hezkuntzak ez dio soilik momentukoari begiratu behar. Begi bat hemen eta beste bat 2039an izan beharko dugu. Edota, Galeanok dioen moduan, begirada mikroskopikoa eta teleskopikoa. Egia da ez dakigula zer gertatuko den 2039an; horregatik, joerei begiratzeko apustua egin dugu. Askotariko joerak hartu ditugu kontuan, askotariko aldagaietan arreta jartzen dutenak: testuinguru hurbilekoak eta urrunekoak, auzi globalei begira daudenak, erronka lokalei begira daudenak, arduratik mundua ulertzeko moduak planteatzen dituztenak.

Datozen urteetarako gizartearen ildo edo **joera** garrantzitsu gisa definitu dira honako hauek:

- Lanaren izaeraren aldaketa
- Herialde eta merkatu emergenteetako erdiko klase sozialaren hazkundea
- Klima-aldaketa eta baliabideen murrizketa
- Munduko aldakortasun geopolitikoaren areagotzea, alderdi etikoa
- Segurtasuna eta pribatutasuna kontuan hartzen dituzten kontsumo jarraibide berriak
- Areagotze demografikoa eta populazioaren zahartzea
- Emakumeen ahalduntzea

Alderdi horiek guztiek markatzen dute datorren urteetarako iparra hezkuntzan: nola hezi mundu honetan herritar osoak, askeak, konprometituak, zoriontsuak?

Lanaren izaeraren aldaketa

Mundu digitala aro industrialeko mundua baino ziurgabeagoa da; zer gertatuko den iragartzea zaila da, eta lan munduan izan duen eta izango duen eragina ezin dugu ukatu. Langileek egoera ziurgabe horretan aritzeko beharko dituzten ezaugarriak izango dira garrantzizkoak, eta ez soilik ezaugarri teknikoak: sormena, pentsamendu kritikoa, komunikatzeko gaitasuna, kolaboratzeko gaitasuna eta malgutasuna, besteak beste. Izan ere, etorkizuneko langileen % 67 izango dira *freelanceak* (McKinsey, 2016).

Digitalizazioak hainbat harreman mota dakartza: malguak, deslokalizatuak, dinamikoak, proiektukakoak. Lanaren ikuspegi horrek bermatzen du lanaren kontrola enpresatik langilera pasatzea (noiz eta non lan egin erabakiz, adibidez) eta ekintzailetasunaren mentalitatea indartzea. Gainera, *Knowmad* (ezagutzaren nomadak) deritze ingurune aldakor eta gorabeheratsu horretan bizitzeko gaitasun handiena dutenei. Mentalitate likido eta irekia dute, eta aro berriko beharretara egokitzeko gaitasuna. *Knowmadak* beta egoera etengabe daude, alertan eta gaurkotze konstantean: beti ikasten. Automatizazioaz kontziente, erantzunetan azkarrak, sortzaileak eta berritzaileak dira, sozialak, sarean lan egin eta pentsatzen dutenak. % 100 digitalizatuak. Talentu naturala edukitzeaz gain, *knowmadek* badakite inteligentzia artifizialarekin eta robotekin lan egin egiten. Egoera horrek 1,1 milioi lanpostu sortuko ditu Europan zazpi urtetan (Roca, 2019): inteligentzia artifizialen hezkuntza programatzailea, roboten sistemen programatzailea, etika kontrolatzailea, pribatutasunean aditua...



Herrialde eta merkatu emergenteetako erdiko klase sozialaren hazkundea

Nahiz eta erdiko klase sozialaren definizio globalik ez zehaztu, The Brookings Institution-ek (2018) garatutako txostenean aurreikusten da 2030. urtera begira herrialde bakoitzak muturreko pobrezia gainditzeko dituen aukerak areagotu direla. Haustura puntuaren ondoren, etorkizunean, muturreko pobre gutxiago eta erdiko klaseko herritar gehiago izango dira. Datozen hamabi urteetan, kalkuluek ohartarazi dute orain baino 150 milioi muturreko pobre gutxiago egongo direla: Mexikoko biztanleria osoa, adibidez.

Klima-aldaketa eta baliabideen murrizketa

Klima aldaketak munduko eskualde guztiei eragiten die. Polo polarrak urtzen ari dira, eta itsas maila igotzen. Zenbait eskualdetan, muturreko eguraldiak eta uholdeak gero eta ugariagoak dira, eta beste batzuetan, berriz, lehorreak dira nagusi. Klima aldaketek ondorio larriak dakartzate Europarentzat: hegoaldean eta erdialdean, lehorreak eta bero olatuak; suteak eta lehorreak Mediterraneoan; iparraldean, hezeguneak urtzea eta neguko uholdeak.

Osasunean ere eragin zuzena dute klima aldaketak eta kostu ekonomikoak. Klima aldaketa hain azkar gertatzen da ezen landare eta animalia espezie askok arazoak izaten baitituzte. Lurreko, itsasoko eta ur gezetako hainbat espezie beste habitat batzuetara joan dira. Landare eta animalia espezie batzuk desagertzeko arriskuan egongo dira, batez beste tenperaturek kontrolik gabe igotzen jarraitzen badute.

Munduko aldakortasun geopolitikoaren areagotzea

Nazioartean beharrezkoa izango da berrikuntzan oinarritutako hazkunde ekonomikoko politikak diseinatzea eta ekonomia digitalaren irabazien banaketan berdintasuna bermatuko duten kontratu sozial berriak eraikitzea. Izan ere, guztion bizitza kalitatea hobetzeko iturri izango dira; gobernantza publikoa sustatzeko eta herritarren eskubideak bermatzeko. Baina aldaketa teknologiko eta sozialak, ordea, erronka izugarriak dakartza. Horien artean daude aberastasunaren banaketa eta banaketa horrek sortzen dituen haustura sozial eta politikoak.

Badirudi, gainera, teknologia geopolitiko berri bat sortzen ari dela, oso lehiakorra eta irabazle eta galtzaile handiak dituena. Aktore berriak sortzen ari dira, zeintzuek zalantzan jartzen baitituzte ordena liberaleko



oinarrizko elementuak, hala nola askatasun indibidualaren zentraltasuna, adierazpen askatasuna, pribatutasunaren balioa edo demokrazia bera gobernu modu gisa.

Alderdi etikoak, segurtasuna eta pribatutasuna kontuan hartzen dituzten kontsumorako jarraibide berriak


Kontsumitzaileen lehentasunak gero eta maizago aldatzen dira, eta horiek jokabide berriak bultzatzen dituzte. Globalizazioak kontsumo ohituren normalizazioa ekarri du, baina gero eta garrantzitsuagoak izango dira kalitatea, benetakotasuna eta pertsonalizazioa. Joerek erakusten dute fabrikazio masiboko elementuen ordez kalitatezko produktuak nagusituko direla: turismoaren arloan, adibidez, esperientzia ekologikoak; eta elikagaietan, esaterako, bertako produktuak. Berehalakotasunaren kontrako slow mugimendua ere areagotzen ari da. Bai eta plastikoz librea den mundu bat lortzeko ekimenak ere: plastikoaren erabilerak eta portaera arduratsuak (berreskuratzea, birziklatzea eta berrerabiltzea).

Pribatutasuna da eta izango da sare sozialen kezka nagusia. Hala ere, erabiltzaile batzuek etengabe partekatzen dituzte beren jarduerak eta kokapena. Alderantziz ere gertatzen da: gero eta kontsumitzaile gehiagok aukeratzen dute sarean denbora murriztea. Ongizatea bermatzeko, kontsumitzaileek denboraren kontrol handiagoa eduki nahi dute, beren mugak ezarri eta beren jardueretan selektiboagoak izan nahi dute. Erabiltzaileen datuak eskuratzea ere bada enpresa teknologikoen nahia, eta horrekiko ardura gero eta handiagoa da.

Areagotze demografikoa eta populazioaren zahartzea

Munduak azken hiru mendeetan bizi izan duen garapen demografikoa bukatzen ari da. Gaur egun, 7,7 bilioi gizaki gara, eta 2050ean 9,9 bilioiraino haziko da. Une horretatik aurrera, ordea, ez da biztanleriaren hazkunderik egongo, eta, beraz, gizakiaren historian aurrekaririk gabeko ziklo demografiko bat itxiko da. XVIII. mendetik aurrera, jaiotze tasa handitzen hasi zen, eta, 1968an, bere gailur historikoa lortu zuen. Orduz geroztik, ordea, garapen hori jaisten hasi zen. Beherapen demografiko horren arrazoiak ugalkortasun tasa baxuagoa da; izan ere, 1990ean, emakume bakoitzeko jaiotzak 3,2 ziren, eta, 2019an, berriz, tasa 2,5era jaitsi da. 2050rako 2ra murriztea aurreikusten da.

Jaiotza-tasen jaitsiera gorabehera, bizi-itxaropena hazten ari da, eta, 2050erako, biztanleria globalaren % 16 65 urtetik gorakoa izatea aurreikusten da (egun, % 9 da). Bilakaera hori



bereziki nabarrituko da Europan eta Ipar Amerikan, non pertsonen % 25ek 65 urte edo gehiago izango baitu. Horrenbestez, lan egiteko moduan dauden biztanleen kopurua jaitsi egingo da, eta horrek tentsioa sor dezake finantza publikoetan.

Emakumeen ahalduntzea

Azken urteetan mundu mailan aurrerapenak lortu badira ere, emakumeek eta neskek diskriminazioa jasaten jarraitzen dute munduko leku guztietan. Genero berdintasuna ez da bakarrik oinarritzko giza eskubide bat; mundu oparo eta iraunkor baterako beharrezko oinarria ere bada. Gainera, emakumeen lan berdintasunaren inguruan lege esparru berriak ezartzea eta emakumeei praktika kaltegarriak desagerraraztea funtsezkoa da munduko herrialde askotan nagusi den genero diskriminazioa amaitzeko. Datozen urteetan, emakumeen ahalduntzeak aldaketak ekarriko ditu maila sozial, politiko eta ekonomikoetan, begirada ekologiko eta feministak lagunduko baitu mundua beste modu batean ulertzen eta garatzen.

Eta, horiekin batera, auzi edo erronka globalak ditugu. Hor dugu Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda. Agendan zehazten diren 17 helburuak gizartearentzat eta planetarentzat garrantzitsuak diren auziak definitzen dituzte. Hauexek dira 17ak:

1. Pobrezia desagerraraztea
2. Goserik ez
3. Osasuna eta ongizatea
4. Kalitatezko hezkuntza
5. Genero berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia irigarria eta ez kutsagarria
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunak murriztea
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza
14. Itsaspeko bizitza
15. Lehorreko ekosistemetak bizitza
16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak
17. Helburuak lortzeko aliantza

Laburbilduz, hiru dimentsio nagusitan batzen diren erronkak ditugu: ingurumenekoak, sozialak eta ekonomikoak.

Ingurumenekoak

Klima aldaketak eta baliabide naturalen desagertzeak egokitzapen eta ekintza urgenteak behar ditu: lehorteak, uholdeak, muturreko tenperaturak, espezieen desagertzea, osasun arazoak... Horregatik, kontsumo ohiturak aldatzea ezinbestekoa izango da. Maila globalean zein lokalean klima aldaketaren aurkako hautuak sustatzea eta garatzea beharrezkoa izango da.

Ekonomikoak

Ezagutza zientifikoak gure bizitza aberastu dezaketen aukera eta irtenbide berriak sortzen ditu, eta, aldi berean, sektore guztietan aldaketa olatu disruptiboak elikatzen ditu. Tokiko, estatuko eta eskualdeko finantza mendekotasunak balio kate globalak eta ekonomia partekatua sortu ditu, baina ziurgabetasun eta arrisku ekonomikoen eta krisien esposizioa ere areagotu du.

Sozialak

Biztanleria globala hazten doan neurrian, migrazioa, urbanizazioa eta aniztasun sozial eta kulturala gero eta handiagoak dira, eta aldaketa horiek herrialdeak eta komunitateak birmoldatu dituzte. Bizi maila eta bizitzeko aukerak desberdintasunak areagotzen ari dira, eta gatazka, ezegonkortasuna eta inertiaren mehatxuak gero eta handiagoak dira.

Mundu mailako joera horiek dagoeneko eragiten diote bizitza indibidualari, eta baliteke datozen hamarkadetan ere hala izatea. Horrela, Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak zehaztutako helburuei erantzutea derrigorrezkoa dela deritzogu:

Izan ere, gaur egungo egoerarako ikasleak heztea atzekoz aurrera ibiltzea da. Aurreratu egin behar dugu, beraz. Gainera, hezkuntzaren balio erantsia indartzeko, joerak kontuan hartzeaz gain, haien garapen posibleak ere kontuan hartu beharko ditugu, agertoki askotarikoei balioa eman beharko diegu, ikasleen beharrei aurrea hartu beharko diegu. Horregatik, eskolaren eta gizartearen arteko mugak lausotzea ezinbestekotzat jotzen dugu.



Hirugarren pausoa. Hezkuntza erakundeen etorkizunerako agertokiak: gizartetik hezkuntza erakundeetara eta alderantziz

Testuinguru horretan, eskolek eta hezkuntza erakundeek ere egin dute beren bidea. Oraindik, ordea, badugu zati bat egiteke. Dakigun bezala, irakasteko eta ikasteko moduak errotik aldatu dira. Irakastea ez da transmititzea. Ikastea ez da ezagutza leku batetik bestera eramatea. Irakasteko eta ikasteko beste modu batzuen bila ari gara: metodologia aktiboak, artistikoak, elkarrekin lan egiten duten eta elkarri laguntzen dioten irakasleak. Erronka berriak ezin dira konpondu irtenbide zaharrak erabiliz. Horregatik, behar ditugu hezkuntza proposamen eta testuinguru eraldatzaileak. Nola egokitu gure sistema etengabe aldaketetara? Errealitatea desafiaturik; bizi diren errealitatea irakurri eta egiteko modu ezberdinei lekua utziz. Izan ere, eskola eta unibertsitate sortzaileak, humanizatzaileak, irekiak, malguak, dinamikoak eta konektatuak imajinatzen ditugu.

Beraz, hezkuntza erakunde irekiak bistaratzen ditugu: gune irekiak eta konektatuak dituen, elkarren artean, errealitatearekin, gizartearekin, komunitatearekin. Hori guztia paisaia digitalizatu gogoetatsu eta jasangarri batean, osasuntsua ere bai. Azken ezaugarri horri garrantzi berezia ematen diogu; izan ere, uste dugu ezinbestekoa dela digitalizazioaren eta teknologien erabilierari buruz gogoeta egitea, hau da, ez dugu mugatu behar teknologia erabiltzera, baizik eta eragina izatea eta hausnartzea lortu behar dugu.

Hezkuntza erakunde ireki bat: dinamizatzaile askotarikoak dituen, hau da, «gizarte»ko dinamizatzaileek hezkuntza erakundeei laguntza emango diete gizartearekin loturiko edo hari begirako proiektuak egiteko orduan. Beste batzuetan, ziurtagiri-emaeleak izatea suertatuko zaigu, gauzak egin ahala baliozkotu ere egin beharko baitira. Bestalde, beharrezkoa da hezkuntzaren dinamizatzaileok jakiteko eta izateko gogoia sustatzea... Alegia, ez dezatela inoren gogorik mugatu, haurrek beren familiatik dakartzaten ingurune eta interes guztietara moldatzen ikas dezagun. Horregatik guztiagatik, garbi dago gaurko rolez bestelakoak izango direla etorkizunean. Batzuetan, irakasleak izango ditugu, baina, beste batzuetan, pertsona batek rol bat baino gehiago hartuko du aldi berean.

Horri esker, hezkuntza erakunde malguagoak lortuko ditugu: malguak ordu egietan, egituretan, antolaketan. Eta ikasteko modu eta interesetara egokituak izango dira. Horrek erakunde mota bat baino gehiago izatea ekarriko du. Etorkizuneko hezkuntza erakundeetan, aurreikusten dugu batzuek lan munduari begiratuko diotela, esate baterako, eta ikasleen motibazio pertsonalak edo interes espezifikoak kontuan hartuz antolatuko dituztela eskaintzak. Ikasle bakoitzak bere interes, premia eta motibazioen arabera itxuratuko du bere ibilbide pertsonala.

Hezkuntza erakunde irekiak nahi ditugu, eta humanizatzaileagoak, zirrikitu gehiagokoak, irekiagoak komunitateko elementuen eta testuinguru askotarikoan joan-etorri dagokionez, baita sare sozialen eta haien erabileraren ondorioz etor litekeenari dagokionez ere. Alegia, askoz lotuagoak egongo dira hezkuntza ez-formalarekin, arestian aipaturiko testuinguru eta elementu guztiak hartu behar baitira kontuan. Horregatik, arreta ikasleen garapen pertsonalean ezarri beharko dugu; horretarako, kontuan hartuko dugu zer harreman duten natura ingurunearekin, besteekin eta beren buruarekin (autoezagutza). Pertsona bere osotasunean hartuko dugu aintzat, eta haren garapena integrala izango da: burua eta gorputza biak garatu behar dira, ez haietariko bat bakarrik, hau da, alderdi pertsonala landu behar da, baina loturak eginez eta tentuz.

Hezkuntza erakundeen misioa kolektiboa indibidualaren aurrean sendotzea izango da; kultura eta hizkuntza transmititu, dinamizatu, sustatu eta eraldatuko ditu. Hezkuntza erakundeak espazioa partekatze eta esperientziak bizitzeko izango dira, eta espazio multifuntzional eta integratzaileak izango dituzte. Epe laburrean, adimen artifizialaren (roboten edo edubot-en) laguntza ere izango dute, betiere pertsona trebatu eta zoriontsuak garatzen laguntzeko.

Eskolak eta unibertsitateak kezka etikoetan eta giza kondizioa hobetzeko itxaropenean bilatu behar dute beti oinarria. Eskolan eta unibertsitatean ikastea programa bati zein bizi esperientzia bati atxikitzea izango da. Horregatik, **egiazko bizi esperientzia** bat sustatu behar du hezkuntzak: parte hartzen duten eragile guztiak (ikasleak, irakasleak, zerbitzuetako langileak...) gure proiektuan sar daitezten (bakoitza bere erritmo eta musika oinarriarekin), bakoitzak alde aurretik dakarren esperientziatik abiatuz eta esperientzia hori garatuz, zabalduz eta garrantzizkoago eta esanguratsuago bilakatuz (*crescendo* musikal batean, lehenik *fortissimo* batera eta ondoren *ttutti* batera iritsiz, hau da, denok bat, ahalik eta hobetoan afinaturiko polifonia batean).

Gure diskurtsoarekin koherenteak izateko, gure ikasleei esaten dieguna haiek eskolan aplikatzea nahi badugu, gauza bera egin beharko dugu geuk ere gure graduatan. Lan eginez gozatuz eta melodia horri jarraituz, gozamen eman nahi diegu gure ikasleei. Izan ere, gogoko dugu egiten duguna, eta gizarteari «onena», «*the best*», «handiena» eman nahi diogu... (Huheziko blues, swing, rock doinuak sortuz, hau da, bateria, baxu, piano eta gitarra oinarri bat partekaturik eta adosturik, bakarka, binaka, hirunaka, launaka nahiz bosnaka arituko dira eragileak, hau da, musika tresnak, inprobisazio sortzaileak eginez eta amalgama guztia akorde itzel eta luze batean zertuz, eta amaieran txindaten gainean «*splash*» ozen bat joz).




Etorkizuneko protagonistak: ikasleen irteera profila marrartzuz

Zehaztu ditugu gure hiru pausoak, eta horien bidez ahaleginduko gara etorkizuna sortuko duten protagonistak ezaugarritzen. Fakultateko ikasleak ditugu ikusmiran, hezkuntzako graduak ikasten ari direnak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza). Eskolaren eraldaketa prozesuan nor izan behar dutenak, aktore eta eragile. Erantzun beharko diote eskolak orain eta hemen duen galdera nagusietako bati: Nola egingo dio aurre eskolak lanik gabeko gizarte bati? Zer funtzio izango du?

Etorkizunerako aldaketa eragileak behar ditugu. Ez da aldaketa eskolan, baizik eta eskolaren beraren aldaketa. Ingurunean eragin positiboa izan dezaketen hezitzaileak, eta besteen asmoak, ekintzak eta sentimenduak ulertu eta egiten dutenaren epe laburreko eta epe luzeko ondorioak aurreikus ditzaketenak. Mundu honetan gaitasunak, ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea baino gehiago dakar etorkizuneko protagonista izateak. Hau da, eskakizun konplexuak betetzeko ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta balioak mobilizatzea dakar, hain zuzen ere. Gizartearen desafioak hor clauda: XXI. mendea ez da XX. mendearen jarraipena.

Bilatzen dugun irakasle profila honako hau da: ezaugarri pertsonaletan lan sakona egingo duena. Profil profesionala ez dugu ahazten; kontrara, profesionaltasunean ere sakondu nahi dugu. Hala ere, etorkizuneko profilen eraikuntza ezin da soilik elikatu lanbideari erantzuteko; badakigu hainbat lanetan sartu-irtenak egingo dituztela (ditugula) etorkizunean. Horrek eskatzen du alderdi pertsonalaren lanketak ere toki esplizitua izatea curriculumean. Ezagutza berriak garatzen jarraituko beharko dugu, azkar egokituz baina espezialitatea ere zainduz. Ezagutza sakona eta transferigarria indartu beharko dugu; ezagutza horiek aplikagarriak izango dira, eta, horretarako, gaitasun sorta zabala beharko dugu; besteak beste, gaitasun kognitiboak eta metakognitiboak (adibidez, pentsamendu kritikoa, pentsamendu sortzailea, ikasten ikastea eta autorregulazioa), gaitasun sozialak eta emozionalak (adibidez enpatia, autoeraginkortasuna eta lankidetzak), eta trebetasun digitalak (adibidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako gailu berriak erabiliz). Ezagutza eta trebetasun aukera zabal hori erabiltzeak ekarriko du jarrerak eta balioak tartekatzea (adibidez, motibazioa, konfiantza, aniztasuna errespetatzea eta bertutea). Jarrerak eta balioak maila pertsonalean, tokikoan, gizartean eta globaletan islatu beharko dira. Etorkizuna eraikitze eta etorkizuneko protagonista izateko, beraz, askotariko jarrerak, balioak, trebetasunak eta ezagutzak beharko ditugu.




Zer ikusi,
hura ikasi?
Ildo berriak
hezkontzan:
(er)aldaketa-
rako hitzak
eta ekintzak

«Hezkuntzari buruzko pentsamendu garaikideak ezaguna denetik harago joan behar du, eta pentsamendu utopiko batetik elikatu, etorkizuna orainaldian pentsatzeko gaitasunaren ikuspegitik eta baita orainaldia etorkizunera begira antolatzearen ikuspegitik»

(Furter, 1970; Novoak aipatua, 2009: 198)

Aurreko atalean azaldu dugun egoeran, narratiba berriak behar ditugu, gaur egungo egoerari eta etorkizuneko aldaketei erantzun dietenak. Uste dugu narratibek aukera emango digutela elkarrizketa sustatzeko, erantzun eta galdera berriak topatzeko; aurrera egiten jarraitzeko (liburu honen azken kapituluaren aurkituko duzu gonbidapen bat). Izan ere, «zer ikusi, hura ikasi» esamoldeak dagoeneko ez du zentzurik gurean, gure munduan. Behar ditugu, beraz, ahots berriak. Hementxe gureak:



Testuinguru berean ahots ugari egon daitezke aldi berean, abiapuntuak eta esperientziak ere ezberdinak direlako. Horietatik guztietatik eraikitzen da aldaketa. Gurea horrelakoa da: globala, koherentea eta erakargarria. Aldaketa horretara heltzeko bidea egin dugu. Berrikuntza prozesu kolektibo gisa ulertzen dugulako, kolektiboa lehenetsi dugu, baina, noski, indibidualetik abiatuz.

Gure aldaketaren abiapuntua pertsonak erdigunean jartzea da, eta, beraz, narratiba edo ildo berri horietan ikasleek hartzen dute benetako garrantzia, kolektiboarekin batera. Ikaste eta irakaste prozesuen erdigunean kokatu ditugu pertsonak –ez diskurtsoan soilik–. Datozen erronkei erantzun ahal izateko, pertsonak hartzen du protagonismoa; gizatasunean sakontzea dagokio gaur egungo pedagogiari. Horretarako, inguruko erronkei eta beharrei erantzuteko gaitasuna izango duten subjektu aktiboak beharko ditugu; erantzukizunez eskakizunak berregokitze gaitasuna izango dutenak. Baina nola definituko dugu zer ikasi behar den? Zer nahi dugu gure ikasleek egitea? Nola egingo diote aurre munduari? Gogoratzen dituzu gure galdera handiak edo big questionak?

Galdera horiek marko bat behar dute, etorkizunaren gaineko ikuspegi bat. Erabakiak hartzeko hari bat. Eta testuinguru horretan kokatzen da gure proposamena: eraldaketaren subjektuak izango diren pertsonak hezteko proiektu bat eraiki dugu. Gure markoan (ikus Mendeberrri 2025 Marko Pedagogikoa, zehaztasunetarako), zazpi printzipio nabarmentzen dira:

1. Ikasleak ikaskuntzaren parte-hartzaile nagusiak direla onartzea, haien inplikazio aktiboa sustatzea eta haiei autorregulazioa garatzen laguntzea.
2. Ikaskuntzaren izaera soziala oinarritzat hartzea, eta ondo antolatutako talde-lana eta lankidetzazko lana aktiboki sustatzea. Irakaskuntzako profesionalak bat etortzea
3. ikasleen motibazioekin eta emozioek lorpenetan duten garrantziarekin (sintonian egotea). Ikasleen arteko diferentzietan sentikortasun handia izatea eta ikasle bakoitzaren aurreko ikaskuntzak aintzat hartzea.
4. Etengabe lan egitea eskatzen duten eta denei ikasteko aukera ematen dieten programak diseinatzea, gehiegizko lan-karga sortu gabe.
5. Espektatibak aintzat hartuz jardutea eta haiekin bat datozen ebaluazio-estrategiak garatzea; oso garrantzitsua da ikasleei feedbacka ematea, ikaskuntza bideratzeko.
6. Lotura horizontala sustatzea, bai ezagutza-arlo eta gaien artean, bai komunitatearekiko eta munduarekiko.
7. Lotura horizontala sustatzea, bai ezagutza-arlo eta gaien artean, bai komunitatearekiko eta munduarekiko.

Esan dugun bezala, printzipio horietan oinarritzen da gure hezkuntza begirada; horrela ulertzen dugu guk hezkuntza. Uste dugu printzipio horiek pertsonaren hainbat ezaugarri sustatzen dituztela. Gure ikuspegi horren atzean, ikasleei etorkizuneko aldaketei aurre egiten lagundu nahi diegu. Izan ere, aldaketek pentsamendu kritikoa, analitikoa eta autonomia garatzea eskatzen dute, nork bere buruaren garapenarekiko eta profesioarekiko konpromisoa erakutsiko duena, erronka berri baina era berean ziurgabeen aurrean dispozizioa duen pertsona; euskara eta euskal kultura gizarte geroz eta eleaniztunago eta kultura-aniztunago honetan bultzatuko dituztenak, balio kooperatiboak zabalduko dituztenak justizia sozialera bidean. Horiek dira, bada, indartu nahi ditugun ezaugarriak. Horiek direlako pertsona gisa desberdindu gaituzten ezaugarriak. Gurean, zortzi ezaugarri pertsonal definitu ditugu etorkizuneko irakasleekin lantzeko: «[...] son acciones integrales de las personas ante actividades y problemas del contexto con ética e idoneidad en tanto se articulan los saberes (saber ser, saber conocer y saber hacer)» (Aragay, 2017).

Ezaugarri pertsonal horiek definitzeko, metodo bati jarraitu diogu; ez dira ezerezetik sortu. Zehazki, RIEDUSIS (Riedulab, 2016) metodologiari jarraitu diogu, eta, ondorioz, ezaugarri bakoitzak badu bere mailakatzea, graduatzea. Denak banatzen dira jokoan, ikaskuntzetan eta marko mentaletan. Jokaerak zeregin edo arazo baten aurrean ditugun egiteko moduei dagozkie, gure egiteko moduetan ditugun aldaketei. Ikaskuntzak, ordea, aldaketen kontzientzia eta ulermena dakarten portaera nahiko iraunkorrek dira. Eta, last but not least, marko mentalek mundua ikusteko eta ulertzeko modua aldatzea adierazten dute; epe luzerako aldaketa izaten da.

Hauek dira gure hezkuntza graduen ezaugarri pertsonalak:



Sortzailea eta eraldatzailea: thinking out of the box

Pertsona sortzaile bat da, bere sormena eraldaketa sozialerako erabiltzen duena. Sentibera, jakin-mina duena eta esperimenez irekia. Errealitateak eta premiak imaginatu eta gauzatu ditu, gogoetaren, malgutasunaren, egokikortasunaren eta estetikaren bitartez jarrera positibo eta proaktiboa erakutsiz, ideiak ekintza bilakatzeko eta hezkuntza arloa eta, horrenbestez, gizartea errotik aldatzeko.

Bere buruari zein besteei galdera berriak egiten eta planteatzen dizkie, argi berria ekartzeko hezkuntza arloarekin lotutako gai (zaharr)etara. Horretarako, ideiak eta testuinguruak sortzen ditu, egoerak sortu ahala erantzunak bilatzeko, pentsamendu dibergentea txertatuz bere izaeran, pentsaeran, jokaeran eta harremanetan. Hala, pertsona ekintzaile eta urratzaile bat erazten da, hezkuntza eraldaketan aktiboki parte hartzen duena eta norberaren begirada zein besteena ezinbestekotzat hartzen dituen.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
SORTZAILEA	Ideiak eta testuinguruak sortzen eta aplikatzen ditu, modu egoki, ireki eta original batean, egoerak sortu ahala erantzunak bilatzeko.	Jakin-minaren ikuspegitik bistaraten eta gauzatzen ditu errealitateak, modu egoki, ireki eta estetiko batean. (THINKING OUT OF THE BOX).	Bere egiten du pentsamendu dibergentea, bere izaeran, pentsaeran, jokaeran eta harremanetan, hezkuntza errealitatea eraldatzeko modurik onena delakoan.
ERALDATZAILEA	Idea eta egikera berriak ekartzen ditu, hezkuntza arloko harremanak zalantzan jarriz eta planteatuz.	Jarrera proaktiboa hartzen eta argudiatzen du, ideiak ekintza bilakatzeko eta hezkuntza arloa errotik eraldatzeko.	Konpromisoa agertzen du ekintzaile eta urratzaile izateko, eta aktiboki parte hartzen du hezkuntza eraldaketan, horretarako bere begirada zein besteena bateratuz.

Norberaren buruarekin eta lanbidearekin konprometitua

Garapen pertsonala eta bere burua ezagutzeko beharra lehenesten ditu; betiere, oinarri hartuta ongizatea, osasun fisikoa, osasun mentala, osasun psikosoziala eta ingurunea zaintzea. Ondorioz, pertsona konprometitu, inplikatu eta proaktiboa da, bai bere buruarekin, bai besteekin. Horretarako, kontuan hartzen du zer funtzio dituen irakasle lanbidea garatzeko esparruetan, hala nola ongizate akademikoarekin, garapen pertsonalarekin eta giza garapenarekin loturikoetan. Hala, erantzukizuna hartzen du bere buruaz, besteez eta beraren inguruneaz, inklusioarekin eta haurren oinarritzko eskubideekin loturiko balio etikoekiko konpromisoa ulertuz eta onartuz, eta une oro ikaslearen intimitateari, gardentasunari eta konfidentzialtasunari etsiz.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
NOR BERE BURUAREKIN	Bere indarguneak eta ahulguneak identifikatzen ditu, autoezagutzatik abiatuz eta aktiboki, sozialki eta pertsonalki garatzeko, oinarri hartuta ongizatea, osasun fisikoa, osasun mentala, osasun psikosoziala eta ingurunea zaintzea.	Badaki eta argudiatzen du zein garrantzitsua den nork bere burua ezagutzea eta nor bere buruarekin eta bere garapen pertsonal eta sozialarekin konprometitzea, oinarri hartuta osasun fisikoa, osasun mentala, ongizatea eta ingurunea zaintzea.	Ezagutzen du bere burua eta konprometitzen da bere buruarekin, pentsatzen baitu edo funtsezkotzat jotzen baitu bere garapen pertsonal eta sozialerako, betiere autoezagutzatik abiatuta.
LANBIDEA-REKINLEA	Erabakiak hartzen ditu, proposamenak egiten ditu, eta irakaskuntza ildoak zehazten ditu, kontuan hartuz inklusioarekin, haurren oinarritzko eskubideekin eta funtzio profesionalekin loturiko balio etikoak.	Ulertzen, onartzen eta azaltzen du zer erantzukizun duen inklusioarekin, haurren oinarritzko eskubideekin eta funtzio profesionalekin eta haiekin daukan harremanarekin loturiko balio etikoetan.	Bere lanbidearekin konprometitzen eta inplikatzeko da, eta kontziente da zer premia dauden irakasle lanbidean garapena onuragarria izan dadin.

Autonomoa eta bizialdi osoan ikasteko gaitua

Bere premiak identifikatzeko autoezagutzatik abiatzen da, eta badaki zein diren bere indarguneak eta ahulguneak. Jarrera autokritiko eta konpontzailea du, eta bere buruarekiko konfiantzaz jokatzeko du, beharrezko tresnak eta baliabideak autogestionatuz. Aldi berean, kontziente da zein garrantzitsua den bizitzan zehar ikastea, eta onartzen du ezagutzaren funtza dinamikoa dela, hau da, etengabe aldatzen dela. Jakin-mina duenez eta inkonformista denez, ikasketa indibidual eta kolektiborako esperientziak sortzen ditu, bizitzan zehar pertsonalki eta sozialki garatzea sustatzeko. Ondorioz, kontziente da ikasketa sakon eta autonomoa bizi guztiko prozesu pertsonal bat dela. Hortaz, segurtasunez, subiranotasunez eta askatasunez jarduten du, eta ardura hartzen du bere hazkuntza pertsonal eta profesionalaz.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
AUTONOMOA	Bere indarguneak eta ahulguneak identifikatzen ditu, eta bere kabuz jokatzeko beharrak bistaritzen.	Autokritikaren ikuspegitik ulertzen, onartzen eta argudiatzen ditu bere ahulguneak eta indarguneak, eta horren arabera jokatzeko, arazoak konpontzeko, horretarako beharrezkoak dituen tresnak eta baliabideak kudeatuz (espazioa, denbora...).	Ontzat hartzen du autokritikoa eta autonomia izatea, eta gai da bere buruarekiko konfiantzatik abiatuta autogestionatzeko.
BIZIALDI OSORAKO IKASTU	Badaki ezagutza dinamikoa dela, eta kontzienteki antolatzen eta egiten ditu ikasketarako proposamenak.	Ulertzen, onartzen eta azaltzen du ikastuna izango dela bizitza guztian zehar, eta ikasketarako jokabideak eta proposamenak planifikatzen ditu.	Balioa ematen dio jakin-mina izateari, inkonformista izateari eta ezagutza zabaltzeari bizitzan zehar pertsonalki eta profesionalki garatzeko, eta horren arabera jokatzeko du.

Kritikoa eta analitikoa

Arrazoitzean eta gogoeta egitean oinarrituriko pentsamendua lantzen du. Gai da egoera, testuinguru edo informazio bat ulertzeko eta hura osatzen duten elementuetan banatzeko, elementuon egitura eta haien arteko harremana ulertzeko, eta garrantzitsua dena identifikatzeko garrantzitsua ez denaren aurrean. Aldi berean, elementuok aztertzen eta ebaluatzen ditu; hainbat ikuspegi, esparru teoriko eta metodotatik abiatuta interpretatzen eta ulertzen ditu, eta ezagutza berriak sortzen. Gai da pentsamendua zehaztasunez eta argitasunez antolatuzeko. Badaki ikuspegiak, esparru teorikoak eta metodoak aplikatzen; erabaki egokiak hartzen ditu egoerei erantzun bat emateko, eta denean aplikatzen ditu. Horretarako, pentsalari kritikoaren jarrera ulertzen eta hartzen du, hau da, argudioak identifikatzen eta ezaugarritzen ditu, eta informazio iturriak eta argudio propioak ebaluatzen, aurreiritziak eta orotarikoak saihesteko. Kontzientzia hartzen du ikertzearen eta hausnartzearen garrantziaz, eta bere identitate propioa sortzen du. Hala, gai da bere ikuspegi propioa lantzeko, eta etengabe ari da ikasten, bai irakasle gisa, bai maila pertsonalean.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
KRITIKOA	Gizarlean ohikoan onartzen diren adierazpenen sendotasuna identifikatzen eta aplikatzen du, behaketa metodoak, esperientzia, arrazoitzea eta abar erabiliz.	Pentsalari kritikoaren jarrera ulertzen, hartzen eta azaltzen du, aurreiritziak eta orotarikoak identifikatuz eta saihestuz, argudioak identifikatuz eta ezaugarrituz, eta informazio iturriak eta argudio propioak ebaluatuz.	Pentsamendu kritikoa barneratzen du, eta edozein egoeratan pentsatzeko, ekiteko eta besteekin batera ekiteko modura txertatzen, bere ikuspuntua lantzeko baliabide gisa.
ANALITIKOA	Erabaki egokiak hartzen ditu egoerei erantzun bat emateko.	Ulertzen eta argudiatzen du nola banatu egoera bat elementutan, askotariko ikuspegi eta esparru teorikoak kontuan hartuz.	Kontziente da edo sinesten du zein garrantzitsua den ikertzea eta hausnartzea, eta kontuan hartzen du irakasle mailan zein maila pertsonalean.



Pertsona kooperatiboa eta justizia sozialera bideratua

Pertsona kooperatiboak eta justizia sozialera bideratuak egiteko modu eta balio kooperatiboak (lankidetzak, partaidetzak, erantzukizun sozialak, eta berrikuntza, etengabeko berriztatze gisa ulerturik) ezagutzen ditu, eta praktikan jartzen ditu, bai beraren komunitatean, bai handik kanpo. Besteekin batera lan egiten du, eta lankidetzan eta kooperatiboki bilatzen ditu irtenbideak, erronkei erantzun bat emateko eta eraldaketa sozialaren bidetik. Bestalde, gai da desberdintasun sozialeko egoerak identifikatzeko (pobrezia eta ongizate komunak, errenta eta genero banaketa, eta abar), eta onartzen ditu bere ardurak. Hala, eragile aktibo gisa jokatzeko du esparru horietako injustizia egoeren aurrean, bai maila pertsonalean, bai irakasle gisa.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
KOOPERATIBOA	Egiteko modu eta balio kooperatiboak ezagutzen ditu (lankidetzak, partaidetzak, erantzukizun sozialak eta berrikuntza), eta askotariko estrategiak erabiltzen ditu besteekin lan egiteko.	Ulertzen eta azaltzen du lan kooperatiboa (enpatia, asertibitatea, besteekin komunikazioa) aberasgarria dela berarentzat eta ingurunearentzat, eta balioa ematen dio irtenbideak lankidetzan bilatzeari.	Kooperatiboki pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko du. Subjektu kooperatiboaren eraikuntzan, uste du bere izateko eta lan egiteko moduak balio kooperatiboetan oinarritzen direla.
JUSTIZIA SOZIALERA BIDERATUA	Generoarekin, pobreziaarekin eta ongizate komunarekin loturiko injustizia sozialeko egoerak identifikatzen ditu.	Ulertzen eta argudiatzen du zer ardurak duen generoarekin, pobreziaarekin eta ongizate komunarekin loturiko injustizia sozialeko egoeren aurrean, bai esparru pertsonalean, bai profesionalean.	Kontziente da zer ardurak duen eragile aktibo gisa generoarekin, pobreziaarekin eta ongizate komunarekin loturiko injustizia sozialeko egoeren aurrean, bai esparru pertsonalean, bai profesionalean.

Komunikazio eleaniztuna eta multimodala, eta kontzientzia interkulturala

Komunikazio eleaniztuna eta multimodala garatzen du, eta, horri esker, kontzientzia hartzen du dibertsitateaz eta dibertsitate hori balioesteko eta onartzeko beharraz, betiere konfiantzatik eta errespetutik abiatuta. Kontziente da badirela askotariko era eta moduak komunikatzeko. Hizkuntzen dibertsitatea eta haien aberastasuna balioesten eta errespetatzen du, baita kulturak ere, eta komunikazioan laguntzen du, bai egoera pertsonaletan, bai profesionaletan. Gainera, komunikatzeko hainbat modu ezagutzen ditu (irudia, tipografia, bideoa, infografia, keinuak, mugimenduak, etab.). Erkidegoko bi hizkuntza ofizialez gainera, gai da gutxienez atzerriko hizkuntza baten bidez komunikatzeko. Kultura dibertsitatea pentsamendu kritikoaren zein errespetuaren ikuspuntutik interpretatzen du. Testuinguru global eta digital batean, badaki zer aukera ematen dituen multimodalitateak (formatu digitalak, fisikoak, moduak, hedabideak...), eta komunikazioa bideratzeko erabiltzen ditu. Horrenbestez, komunikazioa beste errealitate eta kultura batzuetara hurbiltzeko bide gisa ulertzen du, eta onartzen eta balioesten du horri esker pertsonalki eta profesionalki hazten dela. Hori dela eta, proposamenak egiten ditu eta aktiboki parte hartzen du hizkuntzak, kulturak eta komunikatzeko moduak errespetatzearen alde, ikuspegi kritiko batetik.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
KOMUNIKAZIO ELEANIZTUNA ETA MULTI-MODALA	Zenbait hizkuntza eta modutan hitz egiten, idazten, irakurtzen eta, azken batean, komunikatzen da.	Ulertzen, azaltzen eta onartzen du hizkuntzei eta moduei esker beste kultura batzuekin harremanetan egon daitekeela, pentsamendu kritikoaren, konfiantzaren eta elkarrekiko errespetuaren bitartez.	Ontzat jotzen du beste hizkuntza eta komunikatzeko era eta modu batzuk ezagutzea beste errealitate eta kultura batzuetara hurbiltzeko bidea izatea, eta, horri esker, pertsonalki eta profesionalki hazten da.
KONTZIENTZIA INTERKULTURALA	Askotariko kultura ezaugarrietako pertsonekin komunikatzen da, eta komunikazio horretan laguntzen du.	Askotariko kultura errealitateak ulertzen eta balioesten ditu, pentsamendu kritikoaren eta errespetuaren bitartez.	Kontzientzia hartzen du beharrezkoa dela desberdinen arteko bizikidetzak, eta horretarako bideak ematen ditu.

Testuinguru euskaldunean sustraitua eta komunitatearekin konprometitua

Badaki euskaraz, eta gai da errespetuz, egokitasunez eta komunikazio testuingurura egokituta erabiltzeko, kontuan hartuta testuinguru horretan hainbat komunitate eta hizkuntza bizi direla batera. Aldi berean, badaki euskal kultura eta euskara gutxituak direla, eta aktiboki jokatzeko du bere irakasle roletik abiatuta, hau da, kontziente da euskara eta euskal kultura sustatu behar dituela motibaziotik abiatuta, eta onartzen du zer ardura dituen irakasle lanbidearen hainbat esparrutan, eta horren arabera jokatzeko du. Bizi diren testuinguru euskalduna ulertu, errespetatu eta balioestea gainera, etorkizuneko irakasleek tokian-tokian eta tokitik interpretatu eta jokatu behar dute, era horretan globala ere interpretatzeko, bi ikuspegiak uztartzuz. Horrela, harremanak sortzen dira errealitate, komunitate eta hizkuntzen artean, elkarrekiko errespetuan oinarrituta, mundu ekitatiboago eta jasangarriago bat sortzeko.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
TESTUINGURU EUSKALDUNEAN SUS-TRAITUA	Aktiboki parte hartzen du testuinguru euskaldunean, eta proposamenak egiten ditu bere irakasle lanbidearen hainbat esparrutan.	Ulertzen eta azaltzen du euskal hizkuntza eta kultura gutxituak direla; errespetatzen ditu, eta horren arabera jokatzeko du.	Kontziente da eragile aktiboa dela euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean; horrenbestez, horren erantzukizuna hartzen du, eta hala jokatzeko du bere irakasle lanbidearen hainbat esparrutan.
KOMUNITATEAREKIN KONPRO-METITUA	Badaki zein den bere komunitatearen eta beste komunitate batzuen errealitatea, eta besteekin lan egiten du, positiboki, komunitatearen alde.	Ulertzen eta balioesten ditu bere errealitatea eta beste batzuk, eta gai da bere irakasle jardueran txertatzeko ikuspuntu jasangarri batetik. Tokian-tokian eta tokitik interpretatzen eta jokatzeko du, globala ezagutzeko eta interpretatzeko, bi ikuspegiak uztartzuz.	Kontziente da eragile aktiboa dela askotariko errealitateak uztartzeko orduan; horrenbestez, horren erantzukizuna hartzen du, bai irakasle arloan, bai pertsonalean.

Ziurgabetasuna eta frustrazioa kudeatzeko gaitua

Gai da bizi den gizartearen konplexutasuna identifikatzeko eta bisualizatzeko, gizartea etengabe aldatzen ari den heinean. Ildo horretan, egoera bakoitzean gizartea osatzen duten alderdiak identifikatzen ditu, eta haiei buruz eta haiek dakartenari buruz hausnartzen du, bai banaka hartuta, bai elkarren arteko harremanean. Etengabeko aldaketaren eraginez, onartzen du ziurgabetasuna eguneroko ohiko kontu bat dela. Horrenbestez, aztertzen eta ulertzen du zer eragin duten aldaketek berarengan, bere lan esparruan eta gizartean. Ondorioz, egoera bakoitzak eskatzen duenaren arabera jokatu du. Horri guztiari esker, kontziente da pertsona zein profesional gisa garatu behar duela, bai bakarka, bai besteekin. Badaki garrantzitsua dela emozioak une oro kudeatzea, batez ere frustrazioa; horretarako, frustrazioa zer egoeratan sortzen den aztertzen du. Badaki bere emozioen kudeaketa balioesten bere hazkuntza eta ikasketa prozesuan.

	JOKAERA	IKASKUNTZA	MARKO MENTALA
ZIURGABETASUNA KUDEATZEA	Identifikatzen du zein konplexua den gizartea; badaki etengabe aldatzen ari dela, eta aldaketetara egokitzeko estrategiak erabiltzen ditu.	Aزتتzen eta ulertzen du zer eragin duten aldaketek berarengan eta beraren lanbidean, eta gai da aldaketok dakarzkioten emozioak kudeatzeko.	Pentsatzen eta sentitzen du ziurgabetasuna berezkoa zaiela gizarteari eta gizakiari, eta onztat jotzen du hori kudeatzea.
FRUSTRAZIOA KUDEATZEA	Individualki zein kolektiboki frustrazioa dakarkioten elementuak identifikatzen ditu (itxaropenak, sinesmenak, feedback-a...).	Ohartzen da zein garrantzitsua den une oro frustrazioa kudeatzea, eta gai da emozio horrek pertsonalki zein profesionalki daukan eragina aztertzeke eta argudiatzeke.	Badaki bere emozioen kudeaketa balioesten bere hazkuntza eta ikasketa prozesuan, eta badaki frustrazioarekin bizitzen.



Proposamen honek eskatzen du denbora, gogoia eta esfortzua inbertitzea humanoagoak izan nahi dutenengan. Eta hori da gure apustua. Azaldu dugun proposamenak –ezaugarri pertsonaletan indarra jartzea– sormena, imajinazioa, intuizioa eta kuriositatea probesten eta sostengatzen ditu. Alegia, XXI. mendeko pertsonaren garapenean inbertitu nahi dugu, eta garapen hori iraunkorra izatea nahi dugu, gainera. Are gehiago, bizi dugun testuinguruak etengabe eguneratzea eskatuko digu; etengabe egokitzea eskatuko digu; ezagutza garatu eta aldatuko da, eta horregatik indartu nahi dugu pertsona. Eta horregatik hartu dugu bide hau.

Atal hau amaitzeko, eta lerrootan esandakoak hobeto ilustratzeko, García Márquezena omen den ipuin labur bat partekatu nahi dugu zuekin:

Ipuinak dio...

Mundua konpontzen

Zientzialari batek, munduaren atarramendu txarrarekin kezkaz beterik, zerbait egin beharra zegoela agindu zion bere buruari; zertxobait, pittin bat bederen, arazoak konpontze aldera. Eta bere laborategian orduak eta orduak igarotzen zituen konponbideren baten bila-bilaka.

Egunetako batean, behin, zazpi urteko bere semea sartu zitzaion iker-gelara, lanean laguntzeko prest. Ez zion graziarik egin umeak jarduna etetea, eta jolas egitera alde egiteko, faborez, beste bazterren batera handik, egin zion erregu. Ez alferrik: umeak ez zuela alde egingo. Aita, orduan, pentsatzen jarri zen umemoko hari nola demontre jolas-eragingo ote zion bake-bakean. Eta hara, derrepente, non bistaratzen duen aldizkari batean mundu osoko mapa bat. Horratx, horixe behar berak.

Guraize batzuk hartu, mapa puska txikitik moztu eta, roilo bat zinta gardenarekin batera, semeari emanik: «Puzzleak gustukoak dituanek hik –esan zion–, hemen duk mundua txiki-txiki eginda, inortxoren laguntzarik gabe heuk konpon dezaan».

Aitaren irudikoz, mutikoak hamar bat egun ere behar izango zituen noski mapa konpontzen; baina, bai zera. Handik ordu asko baino lehen, bere umea somatu zuen lasai asko hoska:

—Aita, aita! Kito: bukatu dut dena.

Aitak nola sinistuko zion, bada!? Ume mukizu hark nola arraio birmoldatuko zuen, bada, sekula lehenago ikusi gabeko mapa bat? Ezinezkoa zen! Sinesgaitz, beraz, altxatu zituen begiak mahaiko lan-orrietatik, umegorri baten lan lardaxkaren bat ikusiko zuelakoan. Bere harridurarako, ordea, osorik zegoen mapa; osorik eta zuzen.

Puska guzti-guztiak bakoitza bere tokian zeuden, arraiopola. Nola zitekeen, baina, hori!? Nola asmatu ote zuen mutikoak? Galdegin ere, halaxe galdegin zion aitak semeari, harri eta zur:


—Hik ez hekien-eta mundua nolakoa zen, seme; nola kristo lortu duk?

—Aita –erantzun zuen mutil kokorak–, nik ez nekien mundua nolakoa zen. Baina, aldizkaritik mapa atera duzunean, orriaren atzeko aldean, gizon baten irudia ikusi dut. Beraz, mapen puskei buelta eman eta gizona berrosatzeari ekin diot, gizona banekielako nolakoa zen. Gizona konpontzea lortu dudanean, orriari buelta eman, eta konturatu naiz mundua konpondu dudala.

(Gabriel García Márquez omen da ipuin labur honen autorea. Omen. Bai ote? Ez dakit, bada... Dakidana da, baldinbetan!, ipuin labur honen itzultzailea, gaztelaniatik euskarara bueltan, ni neu izan naizela. Itzulgaia konpontzea lortu dudanean, hizkuntzari buelta eman berriro, eta konturatu naiz ipuina konpondu egin dudala).

Bizargorri, 2013-12-18





Hezkun-
tzaren dile-
mak eta de-
safioak: zer
proposatu
pertsonak
hezteko?

«Hezkuntza etorkizuneko indarra da, aldaketarako tresna ahaltzuenetako bat den heinean»

(Morin, 1999: 7)

Zehaztu dugu zer protagonista eta pertsona hezi nahi ditugun; zortzi ezaugarritan marraztu dugu identifikatu ditugun gizarte joeren ispilu gisa. Orain, marraztutakoa eraikitzeko eta lortzeko egin beharrekoak definitu nahi ditugu: egiten jarraitzeko, izaten ikasteko, ZER eta NOLA uztartzeko. Eta atal honetan dakartzaguz protagonistaren hezkuntzarako zenbait ildo; gure eredu, alegia: ERALDAKETAREN Eredua.



MISIOA: etorkizuneko belaunaldien prestakuntza hobetuz, XXI. mendeko hezkuntzaren erronkei aurre eginez eta aukerak baliatuz, eraldaketa prozesuen lidergoa hartuko duten etorkizuneko irakasleei formazio integrala eta kalitatezkoa eskaintzea.

Amaitu da ezagutzen dugun eskolaren aroa? Ez dugu erantzunik. Uste dugu, gainera, ez dagoela erantzun zehatzik, egiteak emango dizkigula erantzunak. Hala bada edo ez bada, guk, HUHEZIn, etorkizuneko irakasleei dagokienez, egin ditugu hautu batzuk: Nola lan egin? Nola ebaluatu? Zer testuinguru eskaini? Egiten ari garena aurkeztera gatoz, beraz, atal honetan, ERALDAKETAREN ereduaren egiteko moduak. Arestian aurkeztu dugun protagonista horretatik eraikia eta galdera berriak sortzea helburu duena.



NOLA lan egin, zer erabaki hartu?

Ezaugarri pertsonal jakin batzuk dituen gizaki bat marraztu dugu: zortzi ezaugarri pertsonal atxiki dizkiogu. Zer eraiki definitu dugu. Orain, nola egin definitzea dagokigu. Ekosistemaren toolkit bat diseinatu dugu gure hezkuntza graduatan. Toolkit-eko tresnak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak aurrera eramateko ildo edo estrategia orokorrak dira. Curriculum-a moduluetan ardatzen da; modulu bakoitzean ezaugarri pertsonalak lantzen dira, eta ekosistemaren toolkit-a lanketa horretarako engranajeak da. Oinarri neuropsikologiko, pedagogiko eta sozioantropologikoak dituzten metodologia aktiboez ari gara.

Berehala konturatuko zaren bezala, ekosistemaren toolkit-eko erraminta batzuk modu progresiboan garatuko lirateke graduko lehenengo mailatik laugarren mailara, eta beste batzuk, modu puntual batean graduaren momentu ezberdinetan. Hauexek dira gure graduen ezaugarriak:

- Norberaren garapena
- Ebaluazio hezitzailea
- Unibertsitatea bizi
- Diziplinartekotasuna
- Mugikortasun esperientzia
- Eskola komunitatearen proiektu partekatua
- Ekimen komunitarioa
- Digitalizazioa
- Hizkuntza proiektua
- Irakurketa proiektua

Norberaren garapena

Norberaren garapena ikasleak autoezagutzan (kontzientzia hartzea) sakontzeko prozesua da, konpromisoak jarrerak ahalbidetzeko, inplikazioa sustatu eta jarrera proaktiboa bultzatzeko, bai nor bere buruarekin, bai lanbidearekin, bai gertuko komunitatearekin. Pertsona erdigunean jartzeak ezaugarri pertsonalak ikasketa planaren ardatz izatera garamatza. Honela, norberaren garapena gure graduaren ardatz bihurtzen da. Graduaren ibilbideak norberaren garapenean lagunduko duten esperientziak bizitzera eramango du ikaslea. Betiere, kontuan hartuta pertsona bakoitzak bere bidea, bere prozesu propioa jorratuko duela. Askotariko esperientziak, askotariko ikasleentzat.

Ikaslea bere prozesuaren jabe da, eta jabeakuntza prozesuan sakontzeko eta ahalduzko bitarteko eta prozesuak eskainiko zaizkio. Horrela, ikasleak bere garapenean sakontzeko hainbat espazio, aukera eta helduleku izango ditu. Bizi dituen esperientziak bere garapen prozesua aberasteko eta elikatzeko erabiliko ditu. Besteak beste, tutoretza da ikasleari eskaintzen zaion bitarteko/prozesua bere prozesua egin dezan.

Ebaluazio hezitzailea

Ebaluazioaren funtzioa ikaskuntza egiaztatzea bada ere, horretaz gainera, ikaskuntzaren autorregulazioa eta irakasleen esku-hartzea erregulatzearen funtzioa dauka. Eraiki nahi dugun eredu honetan, ebaluazioa da ikaslearen garapenaren mesedetan jarriko den tresna. Alegia, ikasleak bere prozesuaren kontzientzia eta ardura hartu behar ditu, eta prozesu hori indartu, sakondu, garatu eta zabaldu. Ebaluazio hezitzaile, holistiko eta erreal baterako bidean, bere prozesua autorregulatzea, haren kontzientzia hartzea eta konpromisoa erakustea izango du helburu ikasleak esperientzia honetan. Ikaste prozesua ikaslearengan oinarrituta baldin badago ezin dira bereizi ebaluazioa eta ikaskuntza; ebaluazioa eta formazioa ez dira bi ekintza bereizi, erabat lotuta baitaude.

Ebaluazioak ikaskuntzari lagundu behar dio; ikaslearen mesedetan jarri behar den tresna da. Ikasleari lagundu behar dio bere garapen pertsonal eta profesionalaren gaineko kontzientzia hartzen; bere prozesuaren kontzientzia eta ardura hartu behar ditu, eta prozesu hori indartu, sakondu, garatu eta zabaldu. Kontzientziaz gain, ikasleari aukera eskaini behar dio bere ikaskuntza propioaren ardura har dezan, hau da, era autonomoan aritu dadin eta autonomia hori garatu dezan. Autonomia garatzeak ikaslearen burujabetza esan nahi du, eta ebaluazioak burujabetze horretan ekarpena egin behar du, garapen pertsonal, akademiko eta sozialean. Garapen osora begira

egon behar da, arreta berezia eskainiz alderdi sozioafektiboari. Ezinbestekoa izango da ikaslea izatea ebaluazio prozesuan elementu gako eta aktiboa. Beraz, ikasleak ebaluazioan erabiliko diren prozesu zein estrategien diseinu, planifikazio, aplikazio zein eztabaidetan egon beharko du. Ebaluazioak ikasle kritiko eta gogoetatsuak, kritikoak eta sozialki konprometituak bermatu behar ditu.

Unibertsitatea bizi

Azken urteetan mundu mailan aurrerapenak lortu badira ere, emUnibertsitatea ez da prestakuntza akademikoari eskaintako espazioa soilik. Unibertsitatea bizi esperientzia bat da; bizitzen, sentitzen, sortzen eta esperientzatu den esperientzia. Arlo akademikotik harago, zenbait ekintza (kultura, kirola, aisia) eta sozializazio espazio biltzen ditu. Curriculum ofizialetik at kokatzen diren bestelako kompetentzia eta ezagutzak lantzeko aukera eskaini behar du. Horrez gain, profesional ekintzailea, sortzailea, aktiboa, jakin-mina duena eraikitzen lagundu dezake.

Horretarako, kultura, kirol eta aisialdi jarduerak egokiak diseinatu behar dira ikasleentzat, eta gizarteratzeko barne espazioak sortu, kalifikazioen arteko praktikak, ohiturak eta zaletasunak trukatzeko. Horrek fakultatearen noten arteko egutegi bateratua behar du, eta jarduerak horiek eskola egutegian integratzea. Helburua unibertsitate esperientzia gogoangarri bat bizitzea da. Horretarako, fakultateko jarduerak kontuan hartu behar dituzte; ikasleak nahastu, eta guztiei horrelako zereginetan parte har dezaten erraztuko zaie. Zeregin horien artean erabaki beharko dugu zein izango diren ebaluagarriak (eskolaz kanpoko jardueretarako kredituak erabil daitezke).

Diziplinartekotasuna

Errealitatearen ezagutza holistikoa izatea ezinbestekoa da egungo ezagutzaren fragmentazioa gaunditzeko eta ezagutzen arteko intersekzioak aurkitu ahal izateko, eta, horretarako, lan kooperatiboa ezagutzaren arloa eraman behar da. Diziplina bakoitzaren mugak eta ezintasunak onartuz, haien arteko mugak malgutu eta trukerako eta elkarlanerako espazioak eta egiteko moduak sortu behar dira. Mundua ulertzeko, diziplinartekotasuna ezinbestekoa da, zuriaren eta beltzaren artean gris asko daudelako.

Diziplina mailako esperientziak ere garrantzitsuak dira, haietatik eraikitzen delako diziplinartekotasuna. Gure kasuan ere biak ala biak hartuko ditugu kontuan, baina garrantzi berezia emango diegu diziplinartekotasunari, ezagutzen arteko interakzioei,

ezagutzen arteko espazioari. Gris mota ugari ikusteko aukera emango diegu gure ikasleei, gris argiagoak eta gris ilunagoak.

Mugikortasun esperientzia

Esperientzia akademikoaz haragoko dimentsio sozial eta kultural zabala duen esperientzia pertsonal eta profesional modura ulertzen dugu mugikortasuna. Epe laburreko zein epe luzeagoko mugikortasun programak egongo dira, eta, programa horietan, helmuga izango dira nazioarteko hainbat herrialde, Euskal Herriko edota Espainiako estatuko zenbait toki. Epe laburreko mugikortasun esperientziak beste herrialde batzuetako hezkuntza zentroak, kooperaziorako erakundeak, gizarte erakundeak zein ekimen soziokomunitarioak bisitatzea izan daitezke. Epe luzeagoko mugikortasuna, ostera, Espainiako estatuko, Europako edo Europaz kanpoko ikastetxe zein unibertsitateetan egingo diren egonaldietan gauzatuko da. Unibertsitate mailako ikasketetan, funtsezkoa da gisa honetako esperientzia izatea, ikasle guztiek mugikortasun esperientzia bat izan dezaten.

Eskola komunitatearen proiektu partekatua

Etorkizuneko hezkuntza eraldatuko duten profesional aktibo eta engaiatuak formatzea da gure helburua. Hein horretan, ikasle batek komunitateetan biziko dituen esperientziak biltzen ditu proiektu honek. Horretarako, egunerokotasunarekin, errealitatearekin eta, azken finean, gure hezkuntza testuinguruarekin harreman zuzena izatea ezinbestekoa izango da garapen prozesuan. Lanbidearekiko konpromisoa garatzeko edo konpromisozko jarrera lortzeko ikaskuntzak eta esperientziak eskaintzen dituen prozesua da proiektu hau. Nolako irakaslea den definituz, bere praktikak gidatzen dituen printzipioak identifikatuz, esku-hartzerako estrategiak eskuratuz eta horretarako bakoitzaren indarguneak eta hobetu beharrekoak identifikatuz.

Norbanakoaren izaeraren garapenean aurrera egiteko eta bizitza guztian zeharreko ikaskuntza batean murgiltzen gaitu. Lanbidearen garapenean izango duen konpromisoarekin, egingo dituen hautuekin, izango dituen jarrerekin eta inplikazio mailarekin zerikusi zuzena daukana. Prozesu horrek irakasle izango den pertsonaren profesionalizazioan eragingo du. Gure ikasleak etorkizuneko lanbideari eta bizitzari aurre egiteko prestatzea da xedea. Ikasleen hasierako formazioan rola aldatzea dakar: ikasle izatetik formatzen ari den hezitzaile izatera. Rol proaktiboan, ekintzailean, kooperatzailean eta eraldatzailean oinarritzen da. Testuinguru konplexu eta ezegonkorrean aritzeko gaitasuna duena.



Ekimen komunitarioa

Ikaslearen dimentsio sozial zein pertsonalari eragingo dio. Ilusioa eta konpromisoa adieraziko du bizi den munduarekiko, eta aberastasuntzat joko du dibertsitate sozial, kultural eta linguistikoa. Gai izango da zenbait arlotan sortzen diren desberdintasunezko egoerak identifikatzeko. Erantzukizun soziala hartuko du egoera bidegabean aurrean, eta eraginak izatera bideratuko du bere jarduera pertsonal eta profesionala, gizarte bidezkoago, solidarioago eta iraunkorrago bat eraikitzeko.

Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa komunitateari emandako zerbitzua eta eduki, gaitasun eta balioen ikasketa uztartzen dituen metodologia da. Ikaskuntza eta Zerbitzu Solidarioak asmo pedagogikoak eta solidarioak elkartzen ditu. Ikasleak, ikaskuntza zerbitzuaren bidez, bere inguru hurbilean hobetu daitezkeen egoera identifikatu eta horren alde egiteko konpromisoa hartzen du. Ikaskuntza praktikora bideratuta dago, eta ikasleek behar errealean eragin ahala ikasten dute, hobekuntzak proposatuz, garatuz eta egikaritzuz.

Digitalizazioa

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizunean ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzepzioa. Ikastea izan daiteke elkarrekintzatik eta interkonexioetatik –hau da, askotariko egia partzialetatik– ezagutza propioa eraikitzea.

Digitalizazioak, beraz, hezkuntza testuinguruak indartu ditzake: elkarlana eta partaidetza, ezagutza denon artean eraikitzea, irakaskuntzaren ohiko hierarkia aldatzea eta ikasleen autonomia indartzeko abaguneak sortzea, besteak beste. Digitalizazioak ez du, ordea, hezkuntza zuzenean eraldatuko. Digitalizazioak lagunduko digu soilik aukera berriak irekitzen eta ditugun testuinguruan berregokitzen. Irakasleek aldaketa etengabe egin behar diete aurre, eta, hortaz, gero eta gaitasun gehiago behar dituzte. Gainera, gailu digitalak nonahi daudenez eta ikasleei gaitasun digitala eskuratzen lagundu behar dietenez, irakasleek gaitasun digitala garatu behar dute. Beraz, digitalizazioa ikaslearen garapen eta ikaste prozesuetan, eta lanbidearen eraldaketan izaten ari den garrantziaz jabetu, eta ikaslearen konpetentzia digitalen autoezagutzatik eta garapenetik eragiteko asmoa duen ezaugarria da.



Hizkuntza proiektua


Pertsonaren garapen osoaren eraginaren ondorio moduan ulertzen dugu hizkuntza proiektua. Hemendik urte batzuetarako ikusmirarekin jokatu nahi dugu, bai sortuko diren testuinguru berriei ahalik eta modurik eraginkorrenean erantzuteko, bai, zelan ez, eragile izango diren protagonistei ezaugarri nagusietan formatzen laguntzeko. Definitu ditugun ezaugarri pertsonalak ez dira soilik testuinguruak kudeatzeko gai izango direnak, ez horixe; azken finean, testuinguruari ikuspegi kritikotik eutsi, norberaren kokapena modu autokritikoan ulertu, eta euskara eta euskal kultura ardatz dituen baina era berean eleaniztuna izango den ekosistema kritiko eraldatzaile bat bilatzen dugu.

Gizartearen ispilu eta eredu izan behar dugu aldi berean. Ispilu izateak eleaniztasunarekiko begirada fina garatzera garamatza, gure ingurunean dugun hizkuntza errealitatea ezagutzera. Era berean, eredu izateak gure testuinguru eleaniztun honetan hizkuntza eragile izatera garamatza. Horretarako, pertsonaren garapen osoa da gure jomuga, euskara ardatz izanik testuinguru euskaldunean lan egin eta ekarpena egitea helburu izango duena.

Irakurketa proiektua

Ikasleen irakurketa gaitasuna sustatzea, irakurketa zentzu zabalean hartuta eta diziplina askotatik begiratuta: arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, musika, arte eszenikoak... Errepertorio literario, ikus-entzunezko eta artistikoaren lanketa sakona eta kontzientea ziurtatu nahi du. Azken finean, sormena oinarri hartuta, mundua ikusi, aztertu eta adierazteko ekoizpenak txertatuko dira irakurketa egitasmoaren barruan. Mundua irakurtzeko esperientzia estetikoak txertatuko ditugu. Irakurketa ulertzen dugu (leitu, ikusi, entzun, sentitu, esperimintatu, bizi...) gu geu eta mundua bera aztertu, interpretatu eta sortzeko prozesu gisa. Horretan, prozesua bera da elementu garrantzitsuena.


Egitasmo honen xedea esperientzia estetikoaren bidez mundua irakurtzea da. Eta gu geu irakurtzea. Ezin dugu mundua irakurri geure burua irakurri gabe, eta ezin dugu geure burua irakurri munduan dugun posizioa eta mundua bera irakurri gabe. Norabide anitzeko irakurketa izango da: kanpotik barrura / barrutik kanpora, nitik gura eta gutik nira... Esperientzia horien bidez, mundua irakurri eta eraldatzeko tresnak eta zaletasuna bultzatu nahi ditugu. Planteamendu horren barruan, arlo ugari landu daitezke: literatura, hitza, irudia, gorputza, ikus-entzunezkoak, musika, paisaia eta abar, baita haien arteko gurutzaketak, nahasketak eta etorriko diren adierazpen modu berriak ere.



Eta hori nola eraman egunerokora?

Gurean, ERALDAKETAREN erudian, ez dago ikasgairik, ez dago materiarik: moduluak ditugu. Moduluak dira, beraz, ikaste unitate minimoa gure ikasleen ikaste-prozesuan, eta moduluak izango dira ikaste eta irakaste prozesuetarako erreferentzia. Guztira 22 modulu ditugu, eta 4 urtetan garatzen ditugu, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan. Moduluak aukera ematen digute porositatea, malgutasuna eta pertsonalizazioa sustatzeko eta metodologia aktiboen bidez garatzeko. Porotsua, fakultatea hezkuntza sistemarekin, gizartearekin hartu-emanean egon dadin, ikasleek egunerokotasunean erronka erreala izan ditzaten lan tresna eta bizipen. Malgua, moduluak ikasleen erritmo edo ikaskuntza moduari erantzutea izango baitu helburu. Aniztasun horri erantzuteko, alternatiba edo ibilbide mota ugari eskainiko zaizkie ikasleei aukeran. Pertsonalizatua, ikasle bakoitzari bere interes edo ikaskuntza prozesuaren arabera graduaren ibilbidea marrazteko aukera emango dion heinean.

Modulu guztiak oinarrizko egitura bat dute. I forma dutela esaten dugu (ikus irudia). Guztiak abiatzen dira *Kick off* une batetik, tutoretza erdigunean egonik, eta amaitzen dira *Closeout* astearekin.



Kick off momentua moduluen abiapuntua da. Abiapuntu horretan, moduluko helmuga eta helburuak partekatzea da helburua. Hala, ikasle bakoitzak bere helburuak betetzeko bide-orria marrazteko momentua izango da. Abiapuntu aste horretan, irakasle eta ikasleen artean partekatze espazioak izatea da gakoa.

Kick off astea amaituta, moduluan eskaintzen diren testuinguruak aurkezteko momentua da. Ikasleak bide-orrian jaso dituen helburu horiek lortu ahal izateko baliatzen dituen esperientziak bizitzeko unea, hain zuzen ere. Askotariko testuinguruak eskaintzea da helburua, ikasleen askotariko beharrei erantzuteko eta guztiak aukerak izan ditzaten momentuaren arabera, erritmoaren arabera, bide-orrian jasotako helburuetara iristeko.

Moduluetan bizitzen diren esperientziekin paraleloan, ikaslearen garapen pertsonal eta profesionalaren prozesua tutoretzak ardatzen du. Hori izango da ikasleak patxadarako izango duen espazioa, hausnartzeko, pentsatzeko eta erabakiak hartzeko. Bakoitzak diseinatu duen bide-orri horren aurrean gelditu, hausnartu eta aurrera begirako erabakiak hartzeko. Tutorearen figurak berebiziko garrantzia izango du horretan: ikasleak bere ikaste prozesuaren ardura emanda, prozesuaren etengabeko hausnarketa eta «ispilu lanak» egitea du zeregin nagusia.

Closeout astea, berriz, moduari itxiera eman eta moduluen hasieran finkatutako helburuen gaineko balorazio bat egiteko unea da. Balorazio horrek askotariko eragileak hartzen ditu kontuan, ez soilik ikasleak, baizik eta baita irakaslea bera, moduluetan eskaintutako testuinguruak eta taldea ere, besteak beste. Era berean, moduluen barruan, ikaste prozesuaren sozializazioak ere badu bere garrantzia. Gure fakultateko hormak porotsu egin behar baditugu, gure eguneroko egitekoak gizarteratzeari ere garrantzitsu deritzogu. Ahaztu gabe hurrengo modulurako trantsizioa egitea. *Closeout* astearen amaieran, behin modulu bat amaituta, hurrengo jarraian etorriko da...



Nola ebaluatzen dugu?

Ebaluazio ereduaren eraldaketa ezinbestekoa da, hezkuntza erakundeetan berrikuntza egin nahi bada. Ebaluazioaren helburua ikaskuntza eta irakaskuntza hobetzea da, eta, horretarako, etorkizuneko ikaskuntzekiko konpromisoa sortu behar da ikasleengan (Margalef, 2014). Horregatik, ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatu behar da. Ebaluazioak irakaskuntza eta ikaskuntza erregulatzen lagundu behar du, hau da, ikasleari prozesuan dituen beharren eta zailtasunen identifikazioa egiten lagundu behar lioke hobetu ahal izateko, eta irakasleari bere praktika birplanteatzen lagundu eta irakaskuntzaren zein alderdi hobetu behar duen ikusarazi (Murillo eta Hidalgo, 2015). Hortaz, irakasle eta ikasleen arteko praktika partekatuta bat behar du izan ezinbestean; izan ere, ebaluazioa ekintza sozial eta parte-hartzailea da.

Eraiki nahi dugun eredu horretan, ebaluazioa da ikaslearen garapenaren mesedetan jarri beharreko tresna. Alegia, ikasleak bere prozesuaren kontzientzia eta ardura hartu behar ditu, eta prozesu hori indartu, sakondu, garatu eta zabaldu. Horrekin batera, guri ere aukerak eskaini behar dizkigu ikasle horiek ezaugarri pertsonalak lortu eta ezaugarriak garatu dituztela ziurtatzeko. Azkenik, ebaluazioak informazioa eman behar digu ziurtatzeko ea graduatan ezartzen diren baldintzek lorpen eta garapen horiek ahalbidetzen dituzten, eta, horrekin batera, jasotako informazioak lagundu behar digu etengabeko hobekuntza prozesuan murgiltzen.

Ebaluazioa hezkuntzaren eraldaketarako giltzetako bat da. Azken finean, ebaluatzeko moduaren arabera ikasten du ikasleak. Duela bizpahiru urte, ugaritu egin ziren ebaluazioa eta kalifikazioa bereizten dituzten proposamenak: Finlandian, Frantzia, Hego Korean eta abarretan,) kalifikaziorik gabeko sistemen aldeko apustua egin dute. Pertsonaren garapenean oinarritzen den hezkuntza sistema batean, irudikatu dezakegu joera horrek gorako bidea hartuko duela.

Gure ebaluazioa «ebalatu» dugu, beraz. Kalifikaziorik gabeko sistema bat eraiki nahi dugu: ikaslearen garapenean eta arduran oinarritua. Tresna nagusia: elkarrizketa. Hona hemen gure ebaluazio sistemaren zutabe nagusiak:



Ebaluazio erreal

Ebaluazioak benetakoa izan behar du, benetako ekintzetan garatu behar du (Coll eta beste batzuk, 2014). Benetako ekintza edo egoera errealtzat hartzen ditugu errealitatek ahalik eta gertuen daudenak, izan errealak, izan simulatuak. Ekintza osatu, konplexu eta esanguratsuak izan behar dute; baldintzak profesioan ekintza hori aurrera eramateko baldintzetatik gertu daude, eta testuinguru batean paratu behar dira (Baartmant eta beste batzuk, 2007). Ezartzen diren ebaluazio irizpideek testuinguru errealean adituek ekintza ebaluatzeko erabiltzen dituzten antzekoak izan behar dute (Baartmant eta beste batzuk, 2007).

Garapenaren ardura

Irakaskuntza gogoetatsuak galdera hauei erantzun behar die: egiten duguna zergatik eta zertarako egiten dugun, eta zer lortzen dugun. Ikasleak prozesuaren gaineko ardura hartuko du. Horrela, bere ikaste prozesuaren inguruko garapena, kontzientzia eta erregulazioa bereganatuko ditu.

Ikaskuntza autonomoa

Ikasleak bere ikaskuntza prozesua berrikusteko baliabideen erabilera bultzatzea, arrazoizko esfortzuak eskatzea, erronka lorgarrien aurrean jartzea, barne zein kanpo errekurtsuak mugiaraztea, ikaskuntzan gertatu dena ulertzeko baliagarria izatea, ezagutzaren transferentzia praktikara eramatea erraztea, ezagutza zein prozesuko beste hainbat alderdi hobetzeko aukerak eskaintzea, funtzionala izatea, hastapeneko ekintzak kontuan hartzea, ikasleak ikaskuntza eta ebaluazioa kudeatzeko gaitasunak dituela sentiaraztea, prozedurei dagokienez eredu egokiak eskaintzea, laguntza nola eskatu edo laguntza egokiema eman diezaiokeena nor izan daitekeen adieraztea eta eskakizun argia izatea (ikasleek eskatutakoa ulertzen dutela ziurtatzea).

Ikaslearen abiapuntua

Ebaluazio hezitzailearen ardurua nagusia ikasleak hartuko du. Ikasleak bere prozesuaren inguruko kontzientzia hartuko du, eta ahalduz prozesu horretarako bitarteko edo testuinguruak eskainiko zaizkio. Ebaluazioa ikaskuntza prozesuarekin batera doa. Ikasle bakoitzaren abiapuntua ebaluazioaren eta garatzeko dituen helburuen gako da. Ikasle bakoitzak bere prozesuaren helburu argiak izan behar ditu, eta irakasleak horretarako estrategiak, baliabideak eta feedback-a eskaini behar ditu. Era berean, ikasleak bere ikaste prozesuaren gaineko ardurua bereganatzea eskatzen du, bere prozesuaren inguruaren eta bestearen hausnarketa eginz (metaanalisis). Irakasleak edo tutoreak helburuen bidaidetza lana egiten du, eta ikasleari hausnarketarako kontzientzia hartzen laguntzen dio bere ikaste prozesuan zehar. Prozesu horretan, trebakuntzarako espazioak eskaintzea ezinbestekoa izango da. Horrela, autoebaluazioa, koebaluazioa, heteroebaluazioa eta 360 °-ko feedbacka erabiltzen ditugu:

Autoebaluazioa: ebaluazioaren erdigunean, ikasleak aukera izango du bere buruarekiko duen autokontzientziarako eta autorregulaziorako gaitasuna garatzeko. Prozesuaren ardatza pertsonalki zein profesionalki garatzea izango da, eta etengabeko garapenera bideratzea. Era berean, prozesuaren azken xedea ikasleak metakogniziora edo metahausnarketara heltzea izango da.

Koebaluazioa: ebaluazioa ekintza sozial modura ulertzen badugu, bestearen prozesuaren kontzientzia eta hausnarketa prozesuak partekatuak izango dira. Norberaren jardunak bestearenean duen eragina erregulatzea da helburua, eta alderantziz.

Heteroebaluazioa: ebaluazioaren erdigunean ikasleak bere buruaren gainean duen autokontzientzia eta autorregulaziorako gaitasuna garatzea badago ere, tutorearen bidaidetza edo irakaslearen mentoring lanak ezinbesteko izango ditu prozesuan. Era berean, urteko tutoreak eta moduluetakoa irakasleek baliozkotze funtzioa ere izango dute.

360 °-ko feedbacka: ebaluazio ekologiko eta holistiko baterako bidean, ikasturtean zehar eskaintako garapenerako espazio edo testuinguruak ebaluatuko dira, eta goian aipatutako hiru alderdi horiekin elkarrekintzan hausnartuko da haiei buruz.

Feedback-ak garrantzi handia du gure ebaluazio eremuan. Arestian aipatu dugun moduan, ikaslearen abiapuntua askotarikoa da ikaste prozesuan. Baina, gurera datozenean, helburuak argiak izango dira. Helmugara iristeko bideak askotarikoak badira, prozesua bideratzeko feedback-a izango da elementu nagusia. Izan ere, feedback-a da ikaslearen garapen prozesuan eragiteko erraminta indartsuena. Horretarako, ezinbestekoa izango da prozesuan abiapuntutik helmugara ikasleak marraztu duenaren gaineko kontrastea egitea. Kontraste lan hori bere kabuz, metaanalisi bidez, taldeak lagunduta edo irakasle edo tutorearen lanaz baliatuta egin ahal izango du ikasleak. Ikaslearen erregulazio prozesuan laguntzeko, honako galdera hauek lagundu dezakete bidean zehar:

- Non nago?
- Zer egin dut?
- Nola iritsi naiz?
- Nora noa?
- Zer egingo dut iritsi nahi dudana horretara iristeko?
- Nola dakit helburua lortu dudala?
- Nola erakutsiko dut?

Ikerketetan, feedback-a etengabe kokatzen da irakaslearen esku dauden esku-hartze indartsuen artean (Hattie eta Timperley, 2007; Kluger eta DeNisi, 1996). Baina feedback-a gutxienez hiru osagai bereizten dituen eraikuntza konplexua da:

Feedback-a	Feedup-a	Feedforward-a
Prozesuaren hasieran helburuak eta helbururako bideak zehaztea. Modulua diseinatzean, erronka edo helburuak markatzea, helburuak lortzeko bide askotarikoak eskaintzea ezinbestekoa izango da.	Helburu bakoitza lortzeko bidearen inguruko hausnarketa, ebidentziarioa eta jarraipena. Autorregulazioaren arabera doiketak egitea. Helburu bakoitza lortzeko emandako espazio edo testuinguruaren balorazioa.	Autorregulazioa edo doiketak eginda, prozesuari berriro ekitea helburuen jarraipena egiteko. Testuinguruaren baloraziotik hausnarketa egitea, egindakoaren inguruko ebaluazioa egitea eta aurrera begirako doiketa.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu batean hiru feedback motak lerrotatuta egoteak berebiziko garrantzia du.



Zer testuinguru eskaintzen ditugu? Pertsonalizatorantz

Moduluetan badira hainbat testuinguru, hau da, hainbat dispositibo eta esku-hartze ikaste-irakaste prozesuak bideratzeko, garatzeko: co-teachinga, tertulia dialogikoak, kasuetan oinarritutako metodologia, dilemak, bizi-historiak, gamifikazioa, irteerak, bitakorak, errealitate areagotua, hitzaldiak, tailerrak, mintegiak, erronkak, bidaia pedagogikoak, eragileekiko elkarlana, errezitaldiak, portfolioa... Baina testuinguruok nahikoa al dira ikasleek ibilbide pertsonalizatuak aukeratu ditzaten? Gaur-gaurkoz, zalantzak ditugu. Baina guk pertsonalizazioaren aldeko apustua egin dugu.

Arestian aipatu dugun moduan, ikasleak ikaskuntzarako bide-orria diseinatzeaz ari gara, eta, horretarako, ekosistemaren toolkit-eko erramintak moduluetan lurreratu ditugu. Moduluetan ibilbide mota ugari eskainiz, ikasle bakoitzak bere premien, nahien, interesen edo ikaste estiloaren arabera bere ikaste prozesu propioa diseina dezan bilatzen dugu, modulua bizi dezan. Ahaztu gabe gure iparra lehen aipaturiko ezaugarri pertsonalen garapenean dagoela. Baina zein dira aukera horiek? Guk pertsonalizatorako aukerari «etxe - lora - bizikleta» deitu diogu. Hona hemen graduaz zehar ikasleek aukeran izango dituzten azeleranteetako batzuk:

Etxe: ibilbide akademikoa izendatzen duguna. Esperientzia pertsonal zein profesional osoa eskainiko duen ibilbidea: presentzialki egiten da, zatiren batzuk online... azaldu gehiago honen ezaugarriak!!! Askotariko adin, jatorri, ikasmaila, profiletako ikasleak elkarrekin lanean, esperientziak partekatzen jarriko dituena. Horretarako, espazioak ere moldatzen ari gara, eraikin berrian. Fakultatea espazio akademiko huts izatetik bizi esperientzia bihurtzea da kontua.

Lora: ibilbide akademikoaren bertsioa da, online modalitatean egiten dena, presentzialtasuna ere izango duena eta modu malgu batean batetik besterako jauzia ahalbidetuko duena. Ikaslearen autonomia, bizialdi osorako ikaskuntza, kompetentzia digitalak garatzeko testuinguruak eskaintzea da asmoa. Online ikaskuntzaren ezaugarri nagusietako bat autonomia da: ikasle bakoitzak bere testuingurura egokitu behar du ikaste prozesua (denboraren kudeaketa, baliabideen erabilera, taldekide edo irakaslearekiko harremanak...). Online ikasketetan ere unibertsitatea bizi esperientzia izatea da asmoa.

Bizikleta: ibilbide duala. Ikastetxeko egunerokotasunera joan-etorriak, ikastetxeetan egon daitezkeen proiektuetan parte hartzea, unibertsitatean bizitzen dutena ikastetxean praktikan jartzea eta hortik profil profesional zein pertsonala garatzea. Teoria eta praktika uztartzeak ikasleari aukera emango dio testuinguru errealetan jarduteko.

Txori: ekimen komunitarioa. Gizarte eragileekin zuzeneko harremana izatea, balio kooperatiboen eta justizia sozialaren gaineko kontzientzia, gure gertuko gizartea ezagutzuz eta erakundeekin sareak sortuz ongizate komunarekin loturiko injustizien aurrean sentsibilizazioa areagotzea.

Butterfly: ingelesezko ibilbidea. Ikaslearen hizkuntza kompetentzia garatzeaz gain, hizkuntza aniztasunaren zein kultura aniztasunaren gaineko sentsibilizazioa handitzea da helburua.

Hegazkin: mugikortasun ibilbidea. Esperientzia honen helburua zera da: ikasleak beste kultura, gizarte edo testuinguru batean murgiltzea. Beste herrialde batean bizitzeko esperientziak sor ditzakeen ziurgabetasun egoerak kudeatzeaz gain, linguistikoki zein kulturaliki askotarikoak izango diren esperientzietan murgiltzeko aukera eman diezaguke ibilbide honek.

Ikasleak aukera izango du urte batetik bestera bere ibilbide pertsonalizatua hautatzeko. Gure ikasleak modu honetan irudikatzen ditugu: denek lortzen dituzte ikaste emaitza bertsuak, baina bakoitzak bere erara. Horrela lortzen dugu eskolaren irudi industrial deseraikitzen hastea: ikasle guztiak une berean gauza bera egiten.

Baina aukerak horixe izango dira, aukerak, ikasleak hartu edo uzteko, bizitzeko edo ez bizitzeko. Izan ere, azken finean, ibilbide pertsonalizatuaren zein dispositiboaren azken xedea ikasleak pertsona zein profesional moduan askotariko bizipen eta esperientziak bizitzea izango da.

Non gaude orain? Zenbait erronka

Liburu honetan aurkeztuko dugun ERALDAKETAREN PEDAGOGIA eredu erronka bat da denontzat. Etengabe garatzen ari den proposamen bat da, eta bere tempoa beharko du egonkortzeko. Proposamenari hasiera eman, eta inplementatzen ari gara gure graduetan.

Helburua 2024an Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatetik irteten diren ikasleek gradu guztia eredu honetan egitea da. Horra helduek, hau da, eraldaketa prozesu horretara helduek honako alderdi hauek kontuan hartzea eskatzen ditu:

- **Eskaintza akademikoa, ikasketa planak eta programak eraldatzea**
- **Irakaslearen lanean rola eta begirada aldatzea**
- **Prozesu, sistema eta espazioak eraldatzea**

Eraldaketa prozesu guztietan bezala, eredu berria beste eredu batzuekin bizikidetzan dago gurean ere. Horrek eskatzen digu eredu guztiak zaintzea eta etengabeko hobekuntzaren aldeko hautua egitea. Diseinatutako ereduak, gutxinaka-gutxinaka gehitu ditugu elementu berriak: ebaluazio hezitzailea, garapen pertsonala, co-teaching-a, ekimen komunitarioa, e-portfolioa... Izan ere, eraldaketa prozesuak eskatzen du irakasleak eta ikasleak, lankideak eta parekideak orohar, bide berri honetan aritzeko prestatzea. Ziklo gogoetatsu baten barnean kokatzen dugun ereduaren inplementazioa: diseinua egiteko orduan. kontuan hartu genituen prototipatzeko edo diseinuak ekoizteko espazioak, eredu bera ebaluatzekeko momentuak, elkar elikatzekeko uneak, hau da, ikaste komunitate gisa eredu eraikitzekeko abaguneak.

Arestian azaldu ditugun elementuak garatzen ari gara, bakoitza bere mailan. Inplementazioa progresiboa da, eta, beraz, garatuta daudenean jartzen dira martxan. Argazkia aldarra izan daiteke, momentuko eta testuinguruko aldagaien arabera, baina badugu bide orri bat, eta hori da gure iparra.


ERALDAKETAREN EREDUA ikertzen


Eredua ikertzen ere hasiak gara. Martxan jarri dugu ikerketa-proiektu bat bi alderdi nagusi aztertzeke: alde batetik, ereduaren inplementazioa, eta, beste alde batetik, ereduaren eragina ezaugarri pertsonaletan.

Ereduaren inplementazioari dagokionez, zenbait ikerketa tresnaren bidez jasotzen dugun gelan egiten dena, hau da, sortzen diren edo ditugun testuinguruak aztertzen ditugu. Izan ere, helburu dugun profilarik dimentsioak garatzeko eskaintzen ditugun praktikak aztertu nahi ditugu. Sakon ezagutu nahi ditugu metodologiak, kultura, estrategia zehatzak, harremanak eraikitzeke modua eta abar. Ikasleek zein irakasleek ahotsak ere jasotzen ditugu, eredu baliozkotzeke eta egiten dugunetik ikasteko. Egiten duguna hobetzeko, ikerketa ezinbestekoa da gurean. Oraingoan, hiru ikerketa xede zehaztu ditugu: ikasleek engagement-a, curriculumaren diseinua eta praktika lerrotzea, eta ikaskuntza sakona. Hurrengo liburuan emango dizugu horren berri ;).

Gainera, aztertu nahi dugu arestian aipatutako aldagai horiek guztiak ikasleengan nola eta zertan eragiten duten. Imajinatuko dugun bezala, pertsona zentroan jartzen dugula esateke, pertsonaren ezaugarrietan izandako eragina ere neurtu behar dugu. Ikerketa ildo honen helburu nagusia ikasleek profila aztertzea da. Hasieratik izan dugu hori argi, eta, horregatik, eredu zehaztu genuenetik hasi ginen ikasleek profilarik ezaugarri ez kognitiboetan arreta jartzen. Orain arte, honako ezaugarri hauek aztertu ditugu: ikasleek nola hautematen dituzten sormena, ekintzailatasuna, kooperazioa, lidergoa edo konpromisoa. Hau da, ezaugarri pertsonal hauen jarraipena egiten ari gara: kooperatiboa, sortzailea eta eraldatzailea, nork bere buruaren garapenaren eta profesioaren gaineko konpromisoa erakutsiko duena. Hasieran gaude, eta laster ezaugarri gehiago txertatuko ditugu gure analisisetan. Hori ere, beraz, hurrengo liburuan kontatuko dizugu.

Elkarrizketa- rako gonbaita





Heldu gara liburuaren amaierara... Baina ez diegu galdera guztiei erantzun. Horregatik sortu dugu atal hau; horregatik dakargu elkarrizketarako gonbita.

Argi dugu etorkizuneko protagonistekin elkarrizketak izan behar ditugula; haien ahotsak jaso behar ditugula; ulertu beharko dugula zein diren haien beharrak eta zertarako erabiltzen duten gurekin landutakoa. Zu ere bazara etorkizuneko protagonista, eta horregatik nahi ditugu zure hitzak jaso. Horregatik elkarrizketarako gonbita. Nola hezi subjektu aktiboak, eraldatzaileak, munduaren interpretatzaileak, besteen ideietara irekiak, eraldaketa sozialaren zaintzaileak, humanoak, jasagarriak eta osasuntsuak?

Hamaika erantzun, hamaika ahots, hamaika komunitate, hamaika pertsona. Horien guztien ahotsa ekarri nahi dugu gurera. Batzuek erantzun dute dagoeneko; beste batzuk orain ari dira erantzuten. Erantzunak aldatzen doaz, ordea, hezkuntza eta mundua aldatzen diren heinean: etengabeko birpentsatze ariketa bat da eskuartean duguna. Eta liburu hau izpiritu horrekin idatzi dugu. Berridazteko, aldatzeko edo apurtzeko. Argi utzi nahi izan dugu zer garrantzia duen guretzat pertsonak, aldaketan aurrean zer esana eta zer eginga badugulako.

Proposatu ditugunak iparra dira. Egiten duguna eta egingo duguna pentsatzen laguntzen digutelako jaso ditugu hemen. Estilo eta aukera askotarikoak daude gure proposamenean, gure ERALDAKETAREN EREDUAN, askotarikoak garelako eta horrelakoak izaten jarraitu nahi dugulako. Eta uste dugulako aniztasun horretatik eraiki behar dela etorkizuna. Aipatu nahi dugu ere ez garela ezerezetik abiatzen. Hezkuntza zientzia bat da, eta, hala den heinean, oinarri garrantzitsuak ditu. Ez ditugu guk asmatu proposamenak: oinarri bat dute denek.

Azken hitz hauetan, zuzenean gonbidatu nahi zaitugu gure elkarrizketara, hezkuntzaren etorkizunaren inguruko solasaldietara. Aldaketek –munduarenak, gizartearenak, herriarenak, gure erakundearenak– elkarrizketa gehiago behar dituzte: irekiak, zintzoak, desafiozkoak. Gazte, heldu, gazteago eta helduago, galdetzeari eta erantzuteari beldurrik ez diotenak, ausardiaz hitz erdi esaten dutenak. Espero dugu zu halakoa izatea, eta hemen duzu, beraz, gure elkarrizketa honetan parte hartzeko gonbita. Nahi duzunean, hementxe izango gaituzu.



Bibliografía

Aragay, X. (2017).
Informe final de la Evaluación de impacto de la experiencia piloto de la Nueva Etapa Intermedia.
Jesuïtes Educació

Baartman, L. K. J., Bastiaens, T. J., Kirschner, P. A. eta van der Vleuten, C. P. M. (2007).
Evaluating Assessment Quality in Competence-based Education: A Qualitative Comparison of two Frameworks.
Educational Research Review 2: 114–129.

Bizargorri (2013).
Mundua Konpontzen.
<https://blogs.diariovasco.com/bai-horixe-bizargorri/2013/12/18/mundua-konpontzen/>

Bourdieu, P. (1997).
Capital cultural, escuela y espacio social.
México: Siglo

Brookings institution (2018).
Anual report.
<https://www.brookings.edu/wp-content/uploads/2018/11/2018-annual-report.pdf>



Coll, C. (2014).

El sentido del aprendizaje hoy: un reto para la innovación educativa.

Aula de aprendizaje hoy.

Furter, P. (1970).

Educação e reflexão.

Petrópolis-Río de Janeiro: Vozes (3.ª ed.).

Galeano, E. (2009).

Patatas arriba. La escuela del mundo al revés.

Patagonia: FURIA.

Hattie, J. eta Timperley, H. (2007).

The power of feedback.

Review of Educational Research, 77(1), 81-112. doi.org/10.3102/003465430298487

Innovación Educativa, 232, 12-17.

<http://aula.grao.com/revistas/aula/232-el-sentido-del->

Kluger, Avraham eta DeNisi, Angelo. (1996).

The Effects of Feedback Interventions on Performance: A Historical Review, a Meta-Analysis, and a Preliminary Feedback Intervention Theory.

Psychological Bulletin. 119. 254-284.

Margalef García, L. (2014).

Evaluación formativa de los aprendizajes en el contexto universitario: Resistencias y paradojas del profesorado.

Educación XX1, 17 (2), 35-55. doi: 10.5944/educxx1.17.2.11478

Mckensy & Company (2016).

Global media report.

<https://www.mckinsey.com/industries/technology-media-and-telecommunications/our-insights/global-media-report-2016>

Meirieu, P. (1995).

La Pédagogie: entre le dire et le faire, Paris, Esf.

Mendeberry 2025

Marko pedagogikoa (2018).

<https://www.mondragon.edu/documents/20182/31371/mendeberry-2025-marko-pedagogikoa/d3c17193-bb3b-429d-ab13-80bc35142af0>

Morin, E. (1999).

Los siete saberes de la educación.

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000117740_spa

Murillo, F. Javier eta Hidalgo, Nina. (2015).

Enfoques fundamentales de evaluación de estudiantes para la justicia social.

Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa. 8. 43-61.

Nazio Batuen erakundea (2015)

Agendaren webgune ofiziala, bertan zehaztutako helburuak eta helburu bakoitzerako informazio gehigarria.

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/sustainable-development-goals/>

Riedulab (2016).

Metodología Riedusis.

<http://www.riedulab.net/es>

Roca, R. (2019).

Knowmads: el profesional del siglo XXI crece.

<https://www.esglobal.org/knowmads-el-profesional-del-siglo-xxi-crece/>

Stalman, A. (2015).

Conversaciones con....

<https://principiodeuncomienzo.wordpress.com/2015/07/26/andy-stalman-el-futuro-no-se-predice-se-crea/>



